



Espainiako Gobernuaren dirulaguntza zertarako? 04

Espainiako Gobernuak eskualderako 4,6 milioi euro iragarri ditu dirulaguntza deialdian. Herriz herri zein proiektu aurkeztu diren bildu dugu.



Jon Bruk txirrindularitza profesionala "utzi" du 40

Profesionaletan zazpi denboraldi egin ondotik, iazko irailean erran zion aio txirrindularitzari beratarak. Egindakoa gogoan, herriak omenaldia eskainiko dio hilaren 27an eta 28an.

2009ko otsailaren 19a • XXIX. urtea
www.ttipi.net



ELIZONDOKO SAN FRANCISCO JAVIER IKASTETXEA

03 Euskara eta ingelesa dituen eredua heldu den ikasturtetik aitzinera



ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



DESKONTUAK

DESKONTUAK

DESKONTUAK

%20

%30

%50

EZKONTZA gehigarria

MARTXOAN



Publizitatea
erreserbatzeko azken eguna
martxoaren 11

948 635 458

DATUAK...

- D ereduan ingelesa eta euskara eskainiko dituen formula ezarriko dute hurrengo ikasturtean Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean.
- Euskara murrizteko Nafarroako Gobernuaren bertze pauso bat dela erran den arren, ikastetxeko arduradunek «euskara mantenduz, ingelesa indartzeko» eredia dela nabarmendu dute.
- Guztiaren inguruko xehetasunak eman dizkigute Itziar Bidegain ikasketa buruak, Isabel Ibarrola eskolako zuzendariak eta Ane Gaztelumendi idazkariak.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Itziar, Isabel eta Ane *Elizondoko San Fco Javier ikastetxea*

«Euskara ez da desagertuko, ingelesa indartzeko eredia da ezarriko dena»

Gurutze PIKABEA

2009-10eko ikasturtean TIL (hizkuntza integratuen tratamendua) sartuko da indarrean...

Guk D eredia deitzen diogu. Gaizki-uleruak zabaldu dira euskara desagertuko dela pentsatuz, baina ez da horrela. Programa berezi bat sartuko da indarrean, D ereduaren barne ingelesa indartzeko eredia, alegia.

Zergatik aukeratu dute Elizondoko eskola eredu hori eremu euskaldunetan ezartzeko?

Perez Nievas kontseilaria Almandozko eskolara etorri zenean, Baztanen TIL eredia ezarri nahi zuela erran zuen. Biharamunean Hezkuntza Departamentutik deitu ziguten hori aipatuz, eta gure baldintzak zein ziren jakin nahi zituztela erranez. Hemen dena euskaraz egiten dela uste zuten, baina ez da horrela, A eta D eredia eskaintzen dira. Euskara mantentzea hasieratik ezarri genien baldintzetako bat izan da eta gure proposamena onartu egin dute.

Nola joan da prozesua?

Urrian hasi ziren bilkurak. Klaustroan onartu genuen lehenbizi eta gero Es-

«Lehen Hezkuntzako hirugarren maila arte, euskara saioek berdintsu segituko dute eta hortik goiti, orain baino hiru saio guttiago emanen dira euskaraz»

kola Kontseilura eraman zen. Baietza ez da borobila izan, baina batez ere kezka dagoelako. Gauza berria da eta normala da beldurra izatea. Hasiera hartan, guri ere kezka sortu zigun, baina garbi izan dugu hiru hizkuntza izan arren —euskara, gaztelania eta ingelesa—, bakoitzak zein toki izanen duen eta momentu honetan ilusioz gaude.

Zein aldaketa izanen dira?

Heldu den ikasturteetik aitzinera ere, D ereduko hizkuntzarik garrantzitsuena euskara izanen da. Metodologia da aldatuko dena. Lehen Hezkuntzako hirugarren maila arte euskara saioek berdintsu segituko dute, eta hortik goiti orain baino hiru saio guttiago emanen dira euskaraz. Gaztelaniatik hartuko dira ingelesa indartzeko ordu gehienak. Ingelesa hizkuntza bezala erakus-

teaz gain, bertze irakasgaiak ere ingelesez eta euskaraz ikasiko dituzte ikasleek. Kontzepturik garrantzitsuenak euskaraz emanen ditugu eta kontzeptu bera ingelesez ere barneratu ahal izanen dute. Hiru hizkuntzekin lan egitea da helburua eta hori irakasleontzat erronka bat da. Gure haurrek hemen lortzen duten euskara maila ona da, eta sistema berri honekin ingelesa indartuko dute. Gaztelaniari orduak kenduko dizkiogu baina kalean nahiko entzuten dela uste dugu.

D eredia kentzeko Gobernuaren bertze urrats bat dela erran izan da...

Hasieran guk ere horrela pentsatu genuen. Iruñean egiten ari direnaren berdina egin nahi zutela uste genuen, euskaratik orduak kendu eta euskara gehi ingelesa formula eskaini. Baina guk eskola honetan ezin dugu hori egin eta gainera, euskara mantendu nahi dugu. Guk jarri ditugu baldintzak, eta Gobernuak ongi hartu ditu.

Behin betiko erabakia izanen da?

Bai, behin betiko ezarriko da sistema hau. D ereduan matrikulatzen dena metodologia berri honekin hasiko da.

Elkarrizketa osoa www.ttipi.net/en.



Aresoko eskola konponketa beharrean dago.



Zubietako markesina okertua dago eta hori konpondu nahi da.



Bertizaranako Udalak Legasako frontoia haunditu nahi du.



Beran kiroldegiko teilatua eta aitzinaldea konpondu nahi dira.

ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Aurkeztu diren 43 proiektuetako batzuk ageri dira argazkietan.

UDAL INBERTSIORAKO ESTATU FUNTSEKO DIRULAGUNTZA

4,6 milioi euroko laguntza jasotzeko 43 proiektu aurkeztu dira eskualdean

Krisi ekonomikoari eta langabeziari aitzin egiteko helburuarekin, Espainiako Gobernuak Udal Inbertsiorako Estatu Funtseko dirulaguntzak jasotzeko deialdia zabaldu zuen joan den urte akaberan. Udal bakoitzak, biztanleriaren arabera, gehienez jaso dezakeen kopurua ere zehaztu zuen, eta horren arabera, Ttipi-Ttapa hartzen duen eskualdean 4.670.542 euro banatuko dituela iragarri zuen. Laguntza, noski, ongi hartua izan da udalerrietan, baina proiektuak aukeratzeko eztabaidak sortu dira hainbat tokitan. Hori da, adibidez, Bera eta Baztanen kasua. Proiektu guztiak ez ziren aho batez onartuak izan. Bertzalde, dirulaguntza eskaera egiteko azken eguna urtarrilaren 24a izan zen, eta horrek ere sortu zuen zer errana. Zugarramurdiri eskaera epez kanpo egin zuela adierazi zion Espainiako Gobernuak. Zugarramurdik, ordea, arazoak arazo, eskaera garaiz egin zuela azpimarratu zuen. Ondoko lerro hauetan inguruko udalek aurkeztu dituzten proiektuak bildu ditugu, eta bakoitzak jaso ahal izanen duen gehieneko kopurua ere bai.

Gurutze PIKABEA

«Udal guztiek salbuespenik gabe bete beharko dituzte funtsaren arauak». Hori argi adierazi zuen Espainiako Gobernuak, bertzela, laguntzarik gabe geldituko direlako. Lana sortzen duten obrak finantzatzeko proiektuak baino ez dituzte onartu deialdian, herriko azpiegiturak hobetzeko proiektuak direnak eta kontratatzen diren langileak langabeak baldin badira. Emandako guztia ongi etorria denez, —are gehiago, krisi garaian—, udalerriek pozik hartu zuten laguntza deialdia, eta gure eskualdean denek egin zuten eskaera.

Udal gehienek proiektu bakarria aurkeztu zuten, baina badira batzuk bat baino gehiago presentatu dituztenak: Bertizarana, Elgorriaga, Leitza, Lesaka, Bera, Baztan... Hain zuzen, azken bi horietan eskaeran aurkeztu nahi zituzten proiektuak ez ziren aho batez onartuak izan.

BAZTANEN HIRU PROIEKTU

Baztanen, NaBairen aldeko zazpi botoei esker atera ziren aitzinera proposamenak. UPN, ordea, abstentitu egin zen. Aukeratu diren proiektuak «*Elizondorako bakarrik*» direla leporatu zion NaBairi, eta hiru eskaera egin beharrean, dirulaguntza «*obra ttiki gehiagotan*» erabiltzearen alde azaldu zen, lanpostu gehiago sortzeko. NaBaik, bere aldetik, hiru proiektuak –Baztan frontoian konponketak, Abastos plazako obrak eta Jaime Urrutia karrikako zolaberritzea– Baztan osorako direla erantzun zion. Gaineratu zuenez, «*lan batzuei eman diegu lehentasuna, 1.388 milioi euroekin ez da denerako ailegatzen*». UPNk aurkeztutako proposamenen harira, «*balorazio ekonomikorik gabekoak direla*» adierazi zuen NaBaik.

Baztango Ezker Abertzalea ere kexu da proiektuak aukeratzeko erabilitako formarekin: «*NaBaik Udalean duen gehiengo baliatuz, bere kabuz hartu ditu erabakiak*». Horrekin batera, irizpideak ez eztabaidatu izana ere salatu du Ezker Abertzaleak: «*Batzar Nagusiak deitzea litzateke onena, eta proiektuak denon artean aukeratzea. Nahiz eta Baztan guztiak aterako duen probetxua, proiektuak Elizondorako dira eta hori sobera zentralizatzea da*».

BERAN, FRONTOIA ETA HAURTZAINDEGIA EZTABAIDAN

Beran ere eztabaidak izan ziren, eta ez ziren mahai gainera atera ziren proiektu guztiak atera aitzinera. Guztira sei proiektu aurkeztu zituzten deialdian: haurtzaindegia, balio anitzeko lokala, Herriko Etxeko obrak, Matzada Plaza eta Kiroldegiko eta Kultur Etxeko lanak. Alkatetzan dagoen EAE-ANV alderdiak frontoiko teilatua konpontzea eta irekiera lizentzia deialdian sartu nahi izan zuen, eta aurrean dirulaguntzak izanen direla erranez haurtzaindegia gerorako uztea proposatu zuen. Oposizioan dauden Aralar, EA eta EAJ-PNVk, ordea, haurtzaindegiari eman zioten lehentasuna eta euren sei botoekin onartu zen proiektua. Frontoiarena, aldiz, ANVren aldeko lau botorekin gelditu zen eta ez zen aitzinera atera.

INTERNET TARTEAN ARAZOAK ZUGARRAMURDIN

Udal idazkariak Internet bidez egin behar izan zuten eskaera, aitzinetik iragarritako gehienezko dirulaguntza kopuruaren muga zentimo bakar batean ere gainditu gabe.

UDALERRIAK	PROIEKTUAK	GEHIENEZKO LAGUNTZA
ARANO	Depositu berritik herrira datorren zati batean hodiak berritzea	22.478 €
ARANTZA	Herriko karrikak konpondu	114.688 €
ARESO	Eskolako fatxada konpondu	50.973 €
BAZTAN	Baztan frontoiaren teilatua eta fatxada konpondu (759.444,89 €) Elizondoko Abastos plazaren teilatua, fatxada eta forjadoa moldatu (398.055,30 €) Elizondoko Jaime Urrutia karrikaren zolaberritze lanen bigarren fasea (231.326,72 €)	1.388.827 €
BEINTZA-LABAIEN	Eskolako bizitegia eraberritu	45.663 €
BERA	Mukixu haurtzaindegia haunditu (126.474 €) Hiltegian balio anitzeko lokala egokitu (154.713 €) Herriko Etxean igogailua paratu (43.149 €) Matzada Plaza egin (165.138€) Kiroldegiko teilatua eta aitzinaldea konpondu (128.447 €) Kultur Etxeko teilatua moldatu (34.102 €)	652.025 €
BERTIZARANA	Legasako frontoia haunditu (89.533,08 €) Legasako zabortegia berreskuratu (26.707,02 €)	117.166 €
DONAMARIA	Eraikin berria egin: beheko solairuan aldagelak eta lehen solairuan erabilera anitzeko lokala	74.335 €
DONEZTEBE	Kiroldegia haunditu	269.376 €
ELGORRIAGA	Plazan konponketak (16.505,05 €€€) Armala eta Iturmututako bideak moldatu (22.230,03 €€€)	38.760 €
ERATSUN	Herriarena den Goikoetxeko teilatua konpondu	29.734 €
ETXALAR	Pistak moldatu (Juanperizenekoborda, Mendiondokoborda eta Urtzailenekoborda) eta Lurrizti auzoan harrizko pareta egin	141.768 €
EZKURRA	Asuncion karrikan pareta bat barrurago sartu, bidea zabaltzeko	32.920 €
GOIZUETA	Olaberriatik Maleneko zubira pasealekua egin	144.245 €
IGANTZI	Lesakara doan bidea konpondu	107.255 €
ITUREN	Mutikoen eskola zahararren egitura konpondu etorkizunean mediku kontsulta egiteko	84.423 €
LEITZA	Haur Eskola moldatu (70.695 €) Udaletxeko obrak: lehen solairua moldatu eta igogailua jarri (298.468 €) Alde zaharrean gaizki dauden adokinak konpondu (67.620,46 €) Hirigintza alorreko konponketa txikiak: bideak, espaloiak... (65.463,32 €) Oinezkoentzako bi pasabide goratu (Uitzitik datorren sarbidean eta Sagastin) (9.071 €)	511.319 €
LESAKA	Aparkalekuak herrigunean (117.634,17 €) Eltzetako pasealekua oinezkoentzat (92.552,70 €) Legarbaratzea pasealekua egokitu (4.900,60 €) Erdikoerrotako ubidea kanalizatzea Bittiria karrikan (49-57 zenbakien artean) (43.848,62 €) Karmeldarren komentu zaharreko barne aretoak egokitu (125.351,12 €) Eskribonean (Alondiga) bulegoak egiteko lokala egokitu (106.333,78 €)	490.257 €
OITZ	Plaza moldatu	27.256 €
SALDIAS	Herriko Etxearen atzekaldeko bi terrazak konpondu, terraza azpikaldea, inguruko lurra eta eskolako ataria ere txukundu.	21.239 €
SUNBILLA	Ermitagoiarako bidea konpondu	117.166 €
URDAZUBI	Landibar eta Iribere auzoetan argiteria paratu	61.592 €
URROTZ	Mendizale eta ehiztarietako aterpea mendian	32.389 €
ZUBIETA	Markesina birmoldatu eta herriko bideak moldatu	54.689 €
ZUGARRAMURDI	Mediku kontsulta moldatu	39.999 €
GUZTIRA		4.670.542 €

Horretarako azken eguna urtarrilaren 24a izan zen. Ongi gogoan dute egun hori Zugarramurdiko Herriko Etxean. Espainiako Gobernuako Administrazio Publikoetako Ministerioak Zugarramurdik ez zuela proiekturik aurkeztu adierazi zuen. Udaletxean, ordea, eskaera egin zela nabarmendu dute hasieratik. «*Aitzineko egunetan ere saiatu ginen baina arazoak izan genituen.*

Urtarrilaren 24an, azken egunean, berriz saiatu ginen. Internetekin arazoak eduki genituen, baina azkenean lortu genuen». Horrela azaldu dio idazkariak **Ttipi-Ttapa**ri. Oraingoan, erantzunaren zain daude.

Edonola ere, dirulaguntzak onartuz gero, finantzazioa lortzeko obrak aurrean egin beharko dira eta 2010eko lehenbiziko hiruhilekoan justifikatu.



Irun Endara zentrala eta N-121A errepidea lotzen zituen burdinezko zubia urak eraman zuen. Orain bi zutabeak ageri dira.

ARTIKUTZAN METRO KOADROKO 134 LITRO BOTA ZITUEN

Uholdeak bide, garaje eta saltokietan eragin du kalterik haundiena

Ttipi-Ttapa

Aitzineko astean etengabe bota zuen euriak bere eragina izan zuen eskualdeko erreketan eta otsailaren 11tik 12rako arratsean gainezka egin zuten hainbat lekutan.

N-121A errepidearen bazterretan ikusi genuen egoerarik arriskutsuena. Etxalarko Urritzokieta alderako bigurutzeko parean, erraterako, gainezka egin zuen Bidasoak eta Oronoz-Mugairiko eta Lesakako suhiltzaileek errekek zeraman furgoneta batetik gidaria atera behar izan zuten, zorionez, onik.

Denetara, Oronoz-Mugairi, Bera, Goizueta eta Lesakako suhiltzaileek 30 ateraldi egin behar izan zituzten.

Igantzikiko Benta eta **Bera** inguruan ere gainezka egin zuen errekek eta bidea itxi egin behar izan zuten otsailaren 12ko goiza arte. Beran, zenbait etxetan argindarrrik gabe egon ziren gau osoan eta Lizuniagarako bidea itxi behar izan zuten. Gainera, La-

rungo pistan ere lur eroriak izan ziren eta eguerdira arte itxia egon zen. Ondoriorik ikusgarriena, ordea, Bidasoa errekek eragin zuen, Irun Endara zentrala hidroelektrikoa N-121A errepidearekin lotzen zuen zubia eraman egin baitzuen, hirugarren aldiz. Hormigoizko zutabea bakarrik gelditzen da, orain, zubiaren arrastorik ez.

Bertze hainbat lekutan ere gainezka egin zuen bai Bidasoa ibaiak, bai Urumeak ere, eta bai bi erreka haundi hauetara doazen bertze erreka batzuk ere.

Donezteben urak Intzakardi parkea estali zuen eta inguruko hainbat komertziotan ere sartu zen. Leitzarako errepidea itxi behar izan zuten.

Sunbillan, joan den urtean estrai-natutako Ramon Latasa plaza estali zuen urak. **Elizondon** ere ura indartsu ibili zen eta gainezka egin zuen.

Lesakan ere suhiltzaileen eskua ezinbertzekoa izan zen, Tomasenekobordako biribilgunea urak hartu bai-

tzuen. Onin errekek ere gainezka egin zuen herrigunean eta inguruko dena eta lokaletan, zurak paratu behar izan zituzten urik ez sartzeko.

Urumeak Fagollaga inguruan egin zuen gainezka eta Hernani eta **Goizueta** lotzen dituen errepidea itxi egin behar izan zuten.

Urdazuri aldeak maiz jasaten ditu uholdeak baina otsailaren 11 eta 12ko euriteek ez zuten kalte haundirik sortu Senperen berriki eraiki den Luberriako urtegiak bere lana egin baitzuen. Hutsa egoten den urtegiak menditik datorren ura biltzen du Urdazuri ibaia atera ez dadin. Hori gertatu zen joan den asteko euriteekin eta horri esker usaian baino etxe gutiagotan sartu zen ura.

Dena den, orokorrean, eskualde osoan hainbat kalte eragin zituzten euriteek eta gainezka egin zuten errekek. Lur eroriak izan ziren hainbat bazterretan eta zenbaitetan pistak ere eraman zituen urak.



Berako Zalain auzoan mendia erori zen.




Donezteben ere gainezka egin zuen errekek eta itxura hau hartu zuen.



Senperen elizaren ondoko parkea urez estali zen.



Igantziko Benten parean Bidasoak gainezka egin zuen.



Sunbillako plaza berria urez estalia gelditu zen.



Lesakako Onin erreka gainezka egin zuen.

PUBLIOMETRIA DATUAK

Banaz bertze, metro koadroko 100 litro baino gehiago bildu zuten eskualdeko estazio meteorologikoetan otsailaren 11n. Eskualdean barna banatuak dauden estazio meteorologikoen datuak aztertuz gero, banaz bertze metro koadroko 100 litro bildu zituzten hilaen 11n. Gehiena Artikutzan bildu zuten:

Artikutzan	134 litro
Lesakako San Antonen	123,1 litro
Etxalarren	113,2 litro
Leitzan	107,7 litro
Arizkunen	104 litro
Amaiurren	103,5 litro
Iruritan	103,3 litro
Beran	101,6 litro
Sunbillan	90 litro
Donezteben	85,8 litro
Gorramendin	79,2 litro
Goizuetan	65,5 litro
Areson	63,5 litro
Lesaka herrian	62 litro



Baztan ibaia bere bidetik atera zen Elbete parean.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	30 €



Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

geure bezeroek aukeratutako proiektua **can+**

• IRAKURLEAK MINTZO •

Triste gaude gaur

Triste gaude gaur. **Ttipi-Ttapa Telebista** itxi delako gaude triste. Gu guztion ibilbidean mugari bat izan da **Ttipi-Ttapa Telebista**. Orain hamar urte eta erdi sortu zenetik, ordu anitz, ilusio eta gogo gehiago, eta euskarazko telebista bat eskualderako sortzeko asmoa egon ziren gibelean. Orain, dirulaguntzen etengabeko murrizketak eta digitalizazioarekin egindako bazterketa legalak, ixtera behartu dute.

Triste gaude gaur, gure ibilbide laboralean eskola ezin hobea izan zen **Ttipi-Ttapa Telebista** bere seinalea eten behar izan duelako. Eta bazterrean uzten dituelako hainbat langile, laguntzaile, iragarle eta proiektua partekatu duten erakunde eta pertsona. Horiei guztiei gure elkartasuna helarazi nahi diegu.

Haserre gaude gaur, ikusita agintari batzuen erabakiek zeinen erraz bidaltzen dituzten pikturara makina bat pertsona zein elkareren ilusio, ahalegin ekonomiko, inplikazio eta ekar-

penak. Haserre gaude gaur, Nafarroako Gobernaren politika anker, oker eta euskararen kontrakoak gure eskubideak zapaldu egiten dituelako. Milaka herritarrei euskarazko komunikabideak izateko eskubidea ukatu egiten dielako.

Amorrotzen gaude gaur, euskarak irabazitako plaza bat galtzen ikusten dugulako. Eskualdean ez ezik, Nafarroan, eta Euskal Herri osoan, erreferentziala izan da **Ttipi-Ttapa Telebistaren** lana, komunikazio aldetik bezala, euskararen normalkuntzan egindako ekarpenagatik.

Amorrotzen gaude gaur, eskualdeko kohezio sozialerako, herriak batzeko, elkartegintza-aren lana zabaltzeko eta sustatzeko, informazioa hedatzeko, isolatuaren bizi direnengana ailegatzeko lantresna bat itxi delako. Eta komunikabide baten itxiera –are gehiago euskarazkoa bada– inoiz ez delako albiste ona.

Triste, haserre, amorrotzen gaude gaur, sortzen zenbat kostatzen den ikusita, zeinen erraz desegiten den ikusten dugulako.

Ttipi-Ttapa Telebistako langile eta laguntzaile ohiak:
Jon Abril
Estitxu Fernandez
Joseba Olagarai
Patxi Vila
Jon Altzuguren
Nerea Altzuri
Enara Arrobarren
Maite Bidarte
Xan Harriague
Alaitz Rekondo

Ttipi-Ttapa Telebistaren itxierari buruz

Ttipi-Ttapa Telebistaren itxiera aztertzeko bildu ondotik, ELA sindikatuak ondokoa adierazi nahi du:

- **Ttipi-Ttapa** informazioarekin lan eginez, azken urte hauetan funtzio sozial bat bete du Bidasoa aldean.

- Informazioarekin lan eginez, euskara transmititzeko ezinberetzeko tresna zen, guztiz euskalduna den inguru honetan.

- Gertatutakoaren harira, ELAK bere elkartasuna adierazi nahi die

Ttipi-Ttapako langileei eta Nafarroako Gobernuari adierazpen askatasuna eta gure nor-tasun kulturala erasotzeari uzteko eskatzen diogu.

ELA sindikatua

Etxalarko herriak soluzio bat behar du orain

Euria egiten duen aldiro, Antsolokuetan bizi diren lagunak ezin dira errekarra begira egon.

Orain dela bi urte, uholde izugarria izan genuen Etxalarren. Espe-rientziak gauza franko erakutsi zigun eta 2008an erreka dragatzeko eskaera egin zuen Etxalarko Udalak, Antsolokuetako presatik hasi eta 300 metro goiti jogan arte.

Eskaera hau, Ingu-ruigiro Departamentuko Uraren Zerbitzutik ukatu ziguten. Ukazio honen arrazoia «*Antsolokuetako presatik goiti dauden grabak gutti direla eta ezin dela justu-*

Lizardi
Telekomunikazioak

TDT Instalazioak
TB Instalazioak (satelite, lurrekoak)
Instalazio indibidualak eta kolektiboak
Portero automatikoak
Ebeko hari musikala

Tel. 670 415 720
joxeanlizardi@hotmail.com

arkitektoak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAEK
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO - Santiago, 54 behea - 948 581 931
BERA - Estegara, 8 behea - 948 625 232

fikatu eremu hori dragatzean sortzen den afekzio ambientalengatik».

Aldi berean, Ingurugiro Departamentua izokintzako eskala bat egiten ari zen Antsolokuetako presan. Momentu ezin hobea zen erreka dragatzeko, ikusirik erreka nola zegoen. Ikusten da Udala eta Departamentuaren eskaerak ez direla berdin neurtzen, izan ere, momentu horretan ezin zen ukatu gure eskaera. Eskala egiterako orduan argi zegoen afekzioak izanzen zirela eta momentu ezin hobea zen dragatze lanak egiteko.

2009. urtean eskaera berdina sartua dugu dagoeneko. Udaletxetik eskaera hau kontutan izanen dutela espero dugu. Eskaera zuzenki Antsolokuetako auzotik egiten da, hor bizi diren auzotarrak eta beraien ondasunen hobe beharrez.

Patxiku Irisarri
Etxalarko alkatea

Erredakzioaren oharra

Aitzineko asteotan sinadurarik gabeko esku-titzak jaso ditugu **Ttipi-Ttapan** Irakurleak Mintzo atalean argitaratzeko. Baina ez dira argitaratu, eskutitz guztiakin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar direlako. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Gisa berean, aipatu, iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez dela komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapan** bere esku izanzen du horretarako eskubidea.

Ttipi-Ttapan
erredakzioa

• 11 GALDERA LABUR •

Orain arte judoan nabarmendu zara, eta orain eskubaloian ere bai. Bietan ongi. Ez al dira ba bi kirol hagitz diferente?

Bai, hagitz diferenteak dira.

Zein duzu nahiago?

Eskubaloia.

Espainiako Eskubaloi Txapelketa jokatzeko Nafarroako selekzioak aukeratu zintuen. Zergatik ote?

Auniz ginen baina ez dakit.

Espereintzia polita izan da?

Bai. Bertze taldeetan maila ona dagoela ikusi dut.

Zenbat partida jokatu zenituen selekzioarekin?

Denetara sei partida jokatu genituen. Andaluzia, Kanarias, Euskadi... Selekzio horien kontra. Batean ez nuen jokatu lepoan tiroia nuelako baina bertzeetan bai. Batzuk irabazi eta bertzeak galdu genituen, eta sailkapen orokorrean zazpigarren gelditu ginen.

Astean zenbat entrenamendu egiten dituzu?

Eskubaloian, hiru entrenamendu astean. Ordu eta erdiko izaten da saio bakoitza.

Eta Nafarroako selekzioarekin ari zinenen?

Eskola egunetan igandetan bakarrik aritzen ginen. Iruñera joaten ginen eta

goizez bi orduko entrenamenduak egiten genituen. Eguberrietan, berri, txapelketa hasi aitzinetik, egunero goiz eta arratsalde ordu eta erdiz entrenatzen genuen.

Eta judoan attaren maila hartzeko nola ikusten duzu zure burua?

Zaila izanen da.

Zein da judoka eta eskubaloi jokalaria ona izateko sekretua?

Entrenatzea.

Judoa eta eskubaloiaz gain, baduzu bertze afiziorik?

Ez.

Kirolari bezala zein da zure ametsa

Eskubaloiarekin segitzea, profesionalan aritzea eta ahal bada hortik bizitzea gustatuko litzaidake.

Ana MINDEGIA

Doneztebeko judoka eta eskubaloi jokalaria



edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak



KULTURA

Haur kantari jaialdian izen emateko epea otsailaren 28ra arte zabalik egonen da

Martxoaren 28an Elizondoko Lur dantzalekuan egingen da laugarren jaialdia

ttipi-ttapa

Euskal Kantuzaleen Elkarteak bertze urte batez Haur Kantari Jaialdiak antolatu ditu. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago eta otsailaren 28ra arte egonen da irekia, Kantuzale Elkarteko 948 144706 telefono zenbakian, 948 382658 fax zenbakian edo nafarroa-garaia@kantuzale.net helbide elektronikoan. Horrez gain, Nafarroako edozein irradi euskaldunetan ematen ahal da izena. Eskualdeari dagokionez, Xorroxin Irratiaren 948 581226 telefonora edo Leitzako Karrape Irratiaren 948 610914 telefonora dei daiteke.

Ikastetxe bakoitzak bi talde, bikote bat eta barkarlari bat aurkez ditzake



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Banaka, binaka edota taldean aurkeztu ahal izanen dute partaideak.

ke eta partaide bakoitzak bi kanta egin ditzake, nahi duen modukoa, hau da zaharra, berria edo norberak sortua. Kantuzale Elkartearen gomendioa horixe da, bi kanta aurkeztea.

MARTXOAREN 28AN ELIZONDON

Jaialdiei dagokienez, lehenbizikoa martxoaren 6an egingen da, 18:00etatik aitzinera Antsoingo antzokian. Martxoaren 14an, Tuterako

Benjamin de Tudela Institutuan izanen da bigarren jaialdia 18:00etan. Hurrengo, martxoaren 20an, Altsasuko Iortia gune eszenikoan egingen da, 18:00etan. Eskualdea ere bisitatuko du

Haur Kantari jaialdiak, martxoaren 28an Elizondoko Lur aretoan izanen baita, 18:00etatik aitzinera. Bukaerako saioa apirilaren 5ean, 11:30ean izanen da Iruñeko Gaiarre antzokian.

Saio bakoitzera inguruetako partaideak joanen dira eta bukaerako saiora, berriz, aitzinako saioetan nabarmendutako partaideak gonbidatuko dira.

13.000 EUROKO AURREKONTUA

Nafarroako Haur Kantari Jaialdiak 13.000 euro inguruko aurrekontua du aurten eta Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kutxak eta Baztan, Tuter, Altsasu, Antsoain eta Iruñeko Udalek eman dute laguntza.

SALGAI - HONDARREN FERIA

FERIA DEL SALDO

SOLDES EXCEPTIONNELLES

2009

MARTXOAK 1 IGANDEA
DOMINGO 1 DE MARZO

10 h. → 19:30 h.

KIROLDEGIA - POLIDEPORTIVO BERA

antolatzaileak / organizadores

larun haizpe

AGARA kirolak
AMEKA ferretoria
ANTIEDA M. leizoria
ARTURO arropa-denda
AZALEA lore-denda
BERA INFORMATIKA, S.L.
SETI JAI ostatu-jaietxea
DUUE ileapaindegia-estetika

EDURNE haur arropa-denda
ELKAR paper eta libur-denda
EXPERT-BORTZIRIAK
GOGO ikuztegia industriala
IGONE liburu eta paper-denda
KALOTXA zapata-denda
MARTUTZAK arropa-bitxiak
YOAN ileapaindegia
ZELA kirolak

laguntzaileak colaboradores

ELKARREKIN GUREA
Gobierno de Navarra

BERA

Salgai-hondarren bigarren feria antolatu du Larun-Haizpek martxoaren 1erako

laz baino sei merkatarri gehiagok eskainiko dituzte produktuak Kiroldegian

ttipi-ttapa

Joan den urteko arrakastaikusita, bigarren ez salgai-hondarren feria egitea erabaki du Larun-Haizpe merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkarteak. Udalak, Nafarroako Rural Kutxa eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin martxoaren 1ean, igandea, egingen da. Sarrera euro bat kobratuko da.

Egun osoan, 10:00etatik 19:30era herriko dendariak stockean dituzten artikulua prezio onean eskainiko dituzte Kiroldegian. Hauek hartuko dute parte: Agara Kirolak, Arturo arropadenda, Edume haur arropadenda, Elkar eta Igone liburu eta paperdenda, Kalotxa zapata denda, Artieda M. lantzeria, Bera Informatika, Zela Kirolak, Martzutzak arropa eta bitxiak, Expert Bortzirriak, Yoan ileapaindegia, Ameka burdindegia, Azalea lore denda, Duve ileapaindegia eta estetika, Beti-Jai ostatu-jatetxea eta Goxo ikuztegi industrialia. laz baino sei komertzio gehiago parte hartuko dute.

Jon Bruri omenaldia
2008aren akaberan



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Dendariak gisa guztietako produktuak paratuko dituzte salgai.

agurtu zuen Jon Bru txirrindulariak profesionalen mailan egindako zazpi urteko ibilbidea. Bide berriari ekin dio, baina orain arte egin duena go-goan, herriak omenaldia eskainiko dio otsailaren 27an eta 28an.

Otsailaren 27an, ortzirala, aureskuak dantzatu ondotik, Jon Bruren ibilbidea jasoko duen argazki erakusketa inauguratuko da 20:00etan. Segidan, luntxa izanen da Kultur Etxean.

Hilaren 28an, 10:00etan martxa zikloturista egingen da Bruren omenez. Hainbat kirolari ezagun gonbidatu dituzte parte hartzeko: Zandio, Koldo Gil, Menchov,

Txente Gartzia, Erbiti, Patxi Vila eta Juanma Garate, bertzeak bertze. Kiroldegitik abiatuko da itzulia eta 12:00etarako, Agerrako pilotalekura itzuliko dira ttikienekin itzuli bat egiteko.

Azkenik, 14:00etan herri bazkaria egingen da Zalain jatetxean. Txartelak Goiko argazki denda, Errekalde ostatuan eta Katea-Biken daude salgai 35 euroren truke.

Kirolen tartean, Bruri egindako elkarriketa irakurgai duzue.

Nasursaren aholkuak

Lehenago asteaz gerroztik, etxeak birgaitzeko dirulaguntza kudea-

ketari buruzko zerbitzua eskaintzen ari da Nasursa Udal Bulegoetan. Beraz, norbaitek gaiaren inguruko zalantzarik balu, Nasursako teknikariak udaletxean izanen dira hilabete bakoitzeko lehenbiziko eta hirugarren asteko asteazkenetan, 8:00etatik 12:00etara.

Nafarroako Gobernuko Etxebizitza eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren menpe dago Nasursa eta Donezteben duen egoitzan, bertzeak bertze, etxebizitzak eraikitze eta zaharbertzetzeko proiektu guztiak tramitatze eta laguntza eskaintzen die Baztan, Bertizarana, Bortzirriak eta Malerrekekako

bizilagunei. Orain, ordea, zerbitzua herrian ere eskura dago.

Aldaketak inauterietako egitarauan

Hasiera batean iragarritako inauterietako egitarauan aldaketak izan dira. Berez, kaldereroak larunbat honetan ateratzekoak ziren, baina aitzieneratu eta joan den larunbatean atera ziren.

Bertzalde, inude eta artzainetako entseguak otsailaren 19 eta 20an egin beharrean, 18 eta 20an (asteazkena eta ortzirala) izanen dira ohiko toki eta orduan: Eztegara frontoian, 20:00etan.

Alkaiagako asfalto lantegia Parlamentuan

Alkaiaga auzoan Orsa lantegia ezarri nahi duen breia labearen gaia aztertu zuten Nafarroako Parlamentuko Ingu-rumen Batzordean otsailaren 10ean. Bilera Nabai taldeak eskatuta egingen eta Herriko Etxetik Josu Iratzoki ANVko alkatea, Helena Santesteban EAKo zinegotzia eta Marisol Taberna Aralar-koa joan ziren. Egoera zein den azaldu zuten.

LESAKA

Bakarrik dauden adintuak zaintzeko Nagusilan sortu da

Boluntarioak biltzeko hurrengo bilera otsailaren 18an egingen da Antoiu 27ko udal aretoan

Aitor AROTZENA

Bakarrik eta babesgabe dauden adintuak zaintzeko boluntarioak bildu nahi dituen Nagusilan elkartearen aurkezpena egin zen otsailaren 4an.

Aurkezpen ekitaldian, Alfonso Obeso Lesakako arduradunarekin batera, Juan Maria Garitano Nagusilan Federazioko presidentea eta sortzailea, Jesus Maria Agirrezabala Nafarroako Federazioko presidentea eta Roman Zulaika, Euskadiko eta

Espainiako Federazioetako idazkaria izan ziren.

Juan Mari Garitano Nagusilan elkartearen sortzaileak aipatu zuenez, Nagusilan adinekoak lagunduz aktiboak izateko asmoarekin sortu zen. Lesakan laster boluntario taldea lanean ikusiko duen itxaropena agertu zuen. 1995ean sortu zuen Garitanok zenbait lagunekin batera Nagusilan. 13 pertsona hasi omen ziren, 12 gizon eta emakume, baina gaur egun,



ARGAZKIA: AITOR A.

Nagusilan elkartearen aurkezpenean bildutakoak.

1.100 boluntarioetatik 700 baino gehiago emakumeak dira, banaz beritze hirutik bi emakumeak dira, beraz.

«URTEAK BIZIZ BETE BEHAR DIRA, EZ BIZITZA URTEZ BETE BAKARRIK»

Jesus Mari Agirrezabala aipatu zuenez, Nafarroan Iruñean eta Lizarran daude Nagusilan elkartearen orde-

karitzak. Nafarroan 3 urte ditu elkarteak eta Lesakako eskaintzarekin aukera hori zabaldu nahi dute. Nafarroako presidentearen erranetan, «*boluntarioa da gehien jasotzen duena, irri bat baita saririk handiena*». Berak zioenenez, «*urteak biziz bete behar dira, ez bakarrik bizitza urtez bete*». Alfonso Obeso Lesaka-

ko Nagusilan elkartearen bultzatzaileak aipatu zuenez, «*konpartitza da hitz magikoa*», boluntarioen lana laburbiltzen duena.

Alfonso Obesok boluntario lan honetan interesa dutenentzat hurrengo hitzordua paratu zuen: otsailaren 18an, asteazkena, 18:00etan, Antoiu 27ko udal aretoan.

Aspaceren lan zentro bereziaren etorkizuna kolokan dago

14 langile ari dira Otsango industrialdeko lantegian

A.A.

Aspacek Otsango industrialdean duen Lan Zentro bereziaren etorkizuna hagitz beltza ikusten du Juanma Aranibar arduradunak: «*%35ean edo ari gara lanean. Lan gehiago behar dugu, nahitaez. Martxoaren 1etik aitzinera,*

soldatak ordaintzeko ere lanak izanzen ditugu, ez dugu segurtatua».

2002an sortu zenean elektrizitate eta automozio arloetarako osagaiak egiten bazituzten ere, joan den udatik labandaria edo ikuztegi lanean ari dira 12 langile eta 2 arduradun.

Zalain jatetxeko mantelaria eta maindireak garbitzea izaten ari da orain beraien lanik handiena. Lekarozko aterpeak, landetxe batzuk, Lesakako udal kiroldegia ere ematen diete lana... Langileak ere kezkatuak somatzen ditu Aranibarrek. «*Lanik ez dugula*



ARGAZKIA: AITOR A.

Aspaceko lantegian, garbitze eta lixatze lanean.

ikusten dute. Astean biz-pahiru egunez pixka bat izaten dugu, baina gero denak geldituak daude. Txandaka aste ba-

teko oporrak hartzen ari gara... Espero dugu udan lan gehiago etortzea eta horiek egiteko prest egoteko».



ETXALAR

Bertso-pilota izanen da aurtengo inauterietako nobedade nagusia

Ortzegun honetan, otsailak 19, haurrek hasiko dituzte inauteriak

Joseba eta Nerea

Heldu den astean ailegatuko da Etxalarrera inauteri besta. Mozorroak atera eta egun batzuetako erokerian sartuko da herria. Astelehenean, urtero bezala, gazteen txanda izanen da. Goizean goizetik hasita, baserri baserri eskean ariko dira goiko eta beheko auzoetan banatuta. Gosaria Elutsan eginen dute, eta bazkariak Usategietako usazaleen txabolan (goiko auzokoek) eta Armitxen (behekoek). Afaltzeko pintxoak izanen dira Elutsan.

Asteartean karrozen txanda izanen da. Egurdiko 12etatik aitzinera, desfilea eginen da plaza-tik abiatuta, karririkaz karrika. Herritar guztiak mozorrotuta ikusteko aukera izanen da. Bazkaria Herriko Ostatuan eginen da, eta ondotik, aurtengo nobedade nagusia: bertso-pilota. 18:00etatik aitzinera, Jexux Mari Irazu eta Anjel

Mari Peñagarikanok bertso-pilota ikuskizuna eskainiko dute, herriko lau pilotari gazteren laguntzarekin. Pilotariak partida jokatu dute, eta bertsolariek botillero lanetan bertsoak botako dizkiete euren jokaldiei. Irririk eta umore onik ez da faltako.

ORTZEGUN GIZENA, HAURREKIN

Herriko ttikienak izanen dira inauteriak hasten lehenbizikoak. Ortzegun honetan, otsailak 19, ospatuko dute Ortzegun Gizena, aspaldiko ohiturari segituz, etxez etxe eskean. *Urtzaingizen, urtzaingizen, zingargarrulltze, bat ezpada bertze, biyek hobe* kantatuz, urtatxak bilduko dituzte goiz osoan, kua-drilla ttikitan banatuta. Arratsaldean, herrikan lejiran ibiliko dira, auzoz auzo antzerkiak eskainiz. Azken urteotan Berako Raul Gartziarekin ikasi dituzte antzerkiak eskolan.



ARGAZKIAK: JABIER IRIARTE

Umorea ezinbertzeko osagaia da inauterietan eta aurten ere ez da faltako.

Kinto bestak

Igande honetan, otsailak 22, eginen dira aurtengo kinto bestak. Urtero bezala, hainbat kintatako jendea elkartuko da, zahar nahiz gazte, besta egun ederraren aitzakian ongi pasatzera. Herriko, Elutsa, Antonio eta Etxalarko benta tanpetaraino beteko dira. Egurdi partean hasiko den eguna, arratsera arte luzatuko da seguruenik. Jende

aunitzentzat inauterien barreneko egunik ederrrena da egun hau.

Antzerki ikastaroa

Berako bi neska gazte, Leire eta Monika Torres, eskualdean antzerki ikastaroak eskaintzen ari dira eta Etxalarren ere ikastaro hau antolatzeko asmoa dute. Izena emateko epea irekita dago da goeneko. Helburua an-

tzerkia zer den ezagutzeaz gain, «denbora atsegin eta jolasgarria pasatzea da», Monika Torresen aipatu digunez. Horretarako hainbat ariketa eta jolas antolatuko dituzte; gorputz espresioa, ahotsa, mugimendua... «Guztia modu ludiko eta dibertigarrian», erran digu Leirek. Izena emateko Kultur Etxera joan edo 948 635386 telefonora deitu behar da.



LEIHOAK "CE"
zertifikazioarekin
kontraleihoak,
tarimak, atea...

Zurgin lanak
orokorrean
ongi pasa inauteriak

IRIBARREN
zurgindegia
Fabrikazio propioa

Tfnoa: 948 635 071 • ETXALAR




ITURRIA
janari-denda

ongi pasa inauteriak

ETXALAR
Plaza
948 635 017

HERRIKO
OSTATU-IATETRIA



Andubats kalea, 15
Etxalar - Nafarroa
T. 948 635 450

IGANTZI

Gimnasio berria zabaldu du Udalak eskolako patioaren ondoan

190 metro koadroko eraikinak gimnasioa ez ezik biltegia ere badu

ttipi-ttapa

190 metro koadroko eraikina zabaldu du Udalak eskolako patioaren ondoan. Lokal berri horren zati bat –90 metro koadro– eskolako neska-mutiko zein gainerako herritarrentzako gimnasio bezala erabiliko da eta bertze 100 metro koadroak udal-etxeko biltegirako erabiliko dira. Gimnasio bezala erabiltzeaz gain, edozein kultur edo kirol ekitaldi antolatzeko ere erabiliko da lokala.

ESPAINIAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZA

Joan den urteko ekainean hasi ziren obrak, ikasleek ikasturtea bukatu orduko, eta geroztik lanean ibili ondotik, ilbeltzaren 31n inau-



ARGAZKIA: LEGARRA

Argazkian ageri diren hrriko hiru dantzariak aureskua dantzatu zuten, agintari politikoak aitzinean zituztela.

ratu zuten. 350.000 euroko aurrekontua izan dute lanek baina Espainiako Gobernuak 240.000 euroko subentzioa bideratu du. Obrak Sunbillako Gazmendi enpresak egin ditu.

EAJKO ORDEZKARIAK
Inaugurazio egunean, Iñaki Goienetxe alkateaz gain, Josu Erkoireka eta Pedro Azpiazua Espainiako Kongresuko EAJ-PNVko diputatuak eta Jose Angel Agirre-

bengoa EAJren Napar Buru Batzarreko presidentea ere herrian izan ziren. EAJko alderdikide gehiago ere bildu ziren: Jose Luis Etxegarai, Agustin Sanz, Juan Fermín Mitxelena, Laura lan-

tzi eta Juanjo Etxebeste, bertzeak bertze.

Herriko hiru neska gaztek, Saio Taberna, Olaia Matxikote eta Amaia Goienetxek, aureskua dantzatu zuten, eta ekitaldiari akabera emateko bildutakoek luntxa izan zuten herriko ostatuan.

Administrariaren ordezkapena egiteko frogak

Joan den asteaz geroztik administrari ofizialaren ordezkapenerako frogak egiten ari dira Herriko Etxean. Amatasun baja dela-eta orain arte administraria izan denaren postua bete nahi da aldi baterako eta seguruenik aste honetan jakinen da izena emandako 19 laguntatik zein geldituko den.

carnha
gustatzen duzue
1.948.63.09.19
www.carnha.net

MERTZERIA
Leño
LENTZERIA
Tel: 948 637 514
Bilbao Plaza, 10 - LESABA

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A.
Igantziko bentak
948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaia
- Mantenu rodilloak

Zalain
jagetxea - hostala
14 logela bainu eta TBrekin
Zalain auzoa s/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

TOLDOS BAZTAN, S.L.
TOLDOAK; salmenta-konponketa, alkanak, errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK modurizatuak-erretzenak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK
TOLDO IA BERRIEN ESKAINTZA
Telleturako, egurrak tapatzeko...
Neurriak: 10x10 m - 10x14m - 8x7m - 5x8 7m
Bilbaoa, 66 behea • BERA • Tfnoa eta Faxa: 948 631003

ARANTZA

Eguraldi kaxkarrak ez du inauterietako giroa trabatu

25 Mozorro Zuri eta herriko musikari gazteak elkarlanean mozorraldi polita iragan da

Nerea ALTZURI

Joan den larunbata, Mozorro Zuriak kontuak egiteko eguna zuten eta oraingoz, lana horrelaxe akaututzat eman dute. Urteroko moduan, Mozorro Zuriak guzia antolatzen aritu dira. Aurten ere kuadrila ederra bildu dira: 25 Mozorro Zuri eta herriko musikari gazteak.

Ortzegunean, ohi bezala, eskolara bisita egin zuten. Ortzeguneko jaunkera ator koadraduna eta galtza urdinak painuluarekin izaten da eta eskolako lagunek prestatuturiko kolorezko eta paperezko puxkak jarri zituzten painulutik zintzilik. Eskolako egonaldiaren ondotik, bi taldetan banatu ziren: batzuk Aientsa eta Azkilarrea auzoetan eta bertzeak Eguzkialdea eta Bordalarrean ibiliz eguna bukatu zen.

Ortziraletan herri kaxko-

ko etxeetan eskean ibili ziren. Egun horretan nola larunbatean, zuriz jauntzen dira herriko gazteak.

Ortziral arratsean 60tik goiti emakumek afaria egin zuten Burlada jatetxean. Gorapean, berriz, Mikel Salaberriekin dantzaldia izan zen goizeko ordu tikiak arte.

Larunbatean eguraldi hagitxarra izan arren, arratsaldean haurraketa guraso mozorrotuak frontoian bildu ziren. Dantzan eta jolasean ibili ondotik, Guraso Elkarteak txokolate beroa banatu zuen pastelekina.

Mezondoan, mozorroen arteko apustua, proba konbinatuak eta bertso pilota saioak izan ziren. Guziaren aitzinetik, ordea, aspaldiko ohitura berreskuratuz, herriko zortzikoa dantza zuten Mozorro Zuriak (garai batean inauterie-



ARGAZKIAK: J. R. AMOROS ETA M. LARRETXEIA

Umorea eta bestarako gogoia inauteri hauetan hutsik egin ez duten bi osagai izan dira.

tan dantzatzen baitzen)

Ondotik, afaldu aitzineteko tarteak kirolek hornitu zuten. Jexux Mari Irazu eta Xabier Legarretak botilero lana egin zuten pilota partidaren bertsoak botaz. Mozorro Beltzek ere euren bisita egin zuten.

SARIAK

Errifen zozketa ere egin zen eta hiru sari banatu ziren. Lehena, telebista, Aintzane Pikabea eraman zuen; bigarrena, mikrouhin-labea Miren Iguzkiagirrek

eta hirugarrena, kafe-makina, Jon Jorajuriak.

Segidan, 110 afaltiarrek Aterpeko bertso afarian parte hartu zuten. Jon Maia bertsolari zumaia etortzeko zen bertsoaren aritzera baina azkenean fisikoki herriaren egon ez bazen ere, telefonoz bertsoak botatu zituen. Hori ere ezustea izan zen bertsozaleentzat eta ilusioa egin zuten. 02:30ak arte luzatu zen afalondoa eta beere lanean hasia zen orduetan, Arantzako Aterpeko Jalisco Band taldea gorapean. Ongi

akautu ziren aurtengo inauteriak.

Kalitatearen saria

Otsailaren 6an, Lekunberriko turismo bulegoan Cederna Garalurrek eta Nafarroako Turismo eta Kultura Sailak kalitateko planaren barne, mendialdeko 33 establezimenduri jardun onaren gida-liburuaren saria eman zieten. Horien artean, Arantzako Aterpeko ere praktika egokien diploma jaso du.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☞ Langile autoonomaok ☞ Nekazariak eta mendi langileak ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak ☞ Lan-Kontratutarako laguntzak ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☞ Diru-laguntza ezberdinak ☞ Kontabilitateak ☞ IVA eta IRPF ☞ Errenta aitortpenak ☞ Elbarritasun eta jubilatze espedienteak ☞ Bidegarritasun planak eta aumekontuak
---	--

artekari@artekari.com

LESABA: Bittio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Vila, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

Tel: 948 713 328 • Fax: 948 631 054

TURISMOA

Praktika Egokien Eskuliburua jaso dute eskualdeko 18 establezimenduk

Baztan, Bortziriak, Malerreka, Bertizarana eta Xaretara joan dira sariak

ttipi-ttapa

Nafarroako mendialdeko 33 establezimenduk Praktika Egokien Eskuliburua jaso dute, mendialdeko turismoaren kalitatea hobetzeko egindako lanagatik. Hain zuzen, hori baita eskuliburu honen helburua, Kalitate Planean ageri den bezala.

Praktika Egokien diploma jaso zuten establezimenduen artean aterpeak, dendak, landa-etxeak, hotelak, artisauak, kirol eta aisialdirako enpresak, museoak, natur eremuak eta turismo bulegoak daude, eta tartean **Ttipi-Ttapa** hartzen duen eskualdeko aunitz.

Praktika egokien eskuliburua jaso duten eskualdeko establezimenduak honako hauek dira: **Narbarteko** Bertiz Aterpea, **Lesakako** Matxinbeltzenea aterpea, **Arantzako** Aterpea, **Doneztebe**ko Casa Ostiz papertegi-zapata-denda, **Elizondoko** Ipingi arropa-denda, **Donez-**



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Diploma jaso duten hainbat establezimendutako jabeak Juan Ramon Corpas kontseilariarekin.

tebeko Ibarrola mertereria, **Elizondo** eta **Doneztebe**ko Maricruz lenteriak, **Elizondoko** Argibel optika, **Doneztebe**ko Alustiza lurrindegia, **Narbarteko** BKZ turismo jarduera enpresa, **Elizondoko** Jorge Oteiza Museo Etnografikoa, **Arizkungo** Santxotena eskultura parkea, **Urdazubiko** leizeak, **Anizko** Jauregia I eta Jauregia II landa-etxeak, **Arizkungo** Lazardiko-borda I eta Lazardiko-

borda II landa-etxeak, **Elizondoko** Urruska landa-etxea eta **Urdazubiko** Irigoiena Landa Hostala.

Sari banaketa otsailaren 6an egin zen Lekunberrin, eta ekitaldian Juan Ramon Corpas Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilaria, Carlos Erce Turismo zuzendari nagusia eta Luis Garate eta Esther Zelaia Cederna-Garalur erakunde presidentea eta kudeatzailea izan ziren.

Bertze aldetik, Kalitate Plan honen osagarri bezala, Turismo Dinamizazio Plana ere sortu zen, turismoa hobetzeko udal erakundeekin dako lana bultzatzeko. Honen arabera, Cederna-Garalurrek dirulaguntza emanen dio Bertizaranako Udalari, Legasa eta Doneztebe arteko Bide Berdea moldatzeko. Proiektu honek 78.512,28 euroko aurrekontua du eta %60ko dirulaguntza jasoko du.

LANA

la mila langaberekin joan da ilbeltza

ttipi-ttapa

Sekula baino langabe gehiago daude eskualdean. Doneztebe bulegoan, %15eko igoera izan zuen ilbeltzean eta 975ra ailegatu zen kopurua: milaren mugatik hurbil eta 2008 urte akabailan baino 128 gehiago. Hego Euskal Herrian, berriz, 146.468 langabe zenbatu ziren aitzineko hilabetean eta daturik okerrenak Nafarroakoak izan ziren, urtebetean %53 igo baitzen. Banaz bertze %10 igo zen langabezia eta Doneztebekoa izan zen bigarren igoera haundiena izan duen bulegoa, Altsasukoaren ondotik. Gainerakoan, Doneztebe INEMen bitartez 259 kontratu egin ziren urtarrilean, eta horietatik 49 bertzerik ez ziren muga-beak izan.


ANZABAL
AGENTZIA



- **Zurich Asegurak**
Autok, etxebizitza, itxipu eta bultzatze asegurak
- **Lan aholkularitza**
Nominu eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- **Inmobiliaria**
Baserri, bostia, preu, etabi... salmenta eta alkatua
- **Gastoria**
Bilgaituen transferentziak, gutuzeko kametaren kontzezio eta etxeen gasako gastuak

Santiago, 15 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

EDARIAK



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27



Jolastuko dugu?
Wii-n jokatzeko aukera duzue gure dendan

GARMIN eta TOMTOMen banatzaile ofizialak gara

CD / DVDtan prezio ikusgarriak

Katalogo zabala kable eta konexioetan

DESBLOKEATZAILEAK
Mugikorrek: 13⁰⁰€
iPhone: 22⁰⁰€



M3 DS Real Tarjeta
2 GB: 34⁰⁰€
4 GB: 39⁰⁰€



ACER ASPIRE ONE
Mikro: Atom N270 a 1,6GHz
HD: 160 GB SATA 2
RAM: 1 GB DDR2 SDRAM
S.O.: LINUX

368²⁰€



ACER TM 5720
Mikro: Intel Core2 T5470
HD: 250 GB SATA 2
RAM: 4 GB DDR2 667Mhz
S.O.: Vista Premium

562⁴⁰€



MSI EX600 423ES
Mikro: Intel CoreDuo T2390
HD: 250 GB SATA 2
RAM: 4 GB DDR2 667Mhz
S.O.: Vista Premium

422³⁰€



TOSHIBA SAT L300D
Mikro: AM2 Turion 2.1Ghz
HD: 320 GB SATA 2
RAM: 4 GB DDR2
S.O.: Vista Premium

658⁶⁰€

XP, VISTA edo... LINUX? AUKERATU GUREKIN

Erosketa bakoitzeko gure zozketan parte hartuko duzu

1. SARIA: Wok Grill-arekin
2. SARIA: Radio CD iratzargailua

ZOZKETA!
apirilaren 30a arte



APP INFORMATICA BERA
Alkalaga industrialdea, Alasta kalea, 1
31789 Lesaka - Nafarroa
Tel. 948 625 324
info@appbera.com
Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara
eta 15:00etatik 20:00etara

APP
bera.com

Prezioak aldaketak eduki dezakete, aldiro eguneratzen dira. Prezio guztiak BEZ-a barne.

SUNBILLA

Bidasoa ibaiak gainezka egin eta inguruak ur azpian utzi ditu

Otsailaren 11ko euriteekin plaza, Karrika Nagusia, frontoia eta hainbat karrika urez bete ziren

Jaione OTXANDORENA

Joan den astean egindako eguraldi kaxkarrak alertan jarri zuen herriko jendea. Otsailaren 11n, gure herritik pasatzen den Bidasoa ibaiak gora eta gora egin zuen etengabe arratsalde guztian, eta gaue-rako, herriko plaza, karrika nagusia, frontoia eta ugarte bazterreko karrika nahiz txoko guztiak urpean gelditu ziren. Zubi berriaren parean ere ibaia gainezka egitear egon zen.

Suhiltzaileak ibili ziren gau guztian ibaieren egoera kontrolatzen eta beraien esku zegoena egiten. Plaza berria egin zenetik, horrelako uholdea gertatzen den lehenengo aldia izan da.


Euskal Herriko Mus Txapelketa

Aitzineko alean aipatu bezala, joan den otsailaren 6an jokatu

zen Ulibeltzak Elkarte-an Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa. Bederatzi bikotek bertzerik ez zuten eman izena eta Jose Luis Agirre eta Jose Miguel Galain atera ziren irabazle. Beraz, Iruñean jokatuko den hurrengo kanporaketarako txartela lortu zuten.

Ulibeltzak Elkarteko Zuzendaritzan aldaketak

Oraindik data zehatzik ez badago ere, hilabete honen bukarean izanen da Ulibeltzak Elkarteko Zuzendaritza Batzordea berritzeko bilera. Egungo batzordeak bi urte bete ditu dagoeneko aipatutako lanean, eta orain bertze bazkideei tokatuko zaie lekukoa hartzea. Datozen aleetan emanen dugu horren inguruko informazioa.



ARGAZKIA: AINHOA ETXEBESTE

Argazkia otsailaren 11ko arratsean ateratakoa da, eta ikusten denez, Ramon Latasa plaza ur azpian gelditu zen.



ARGAZKIA: J. OTXANDORENA

Asteburu kulturala antolatzen bilerak

Datorren otsailaren 21ean, larunbata, Antzakaitz Kultur Taldea, Guraso Elkartea eta Antrotokiko gazteak Ulibeltzak Elkartean bilduko dira martxoan antolatzen den Asteburu Kulturalerako prestaketak egiten hasteko. Joan den urteko egitarauari eustea da beraien helburua, nahiz eta iaz antolatutako lehen feriak ez zuten arrakasta handiegirik izan eguraldi txarraren ondorioz. Ea aurten eguraldiak feria ez zapuzteko aukera ematen digun! Asteburu Kulturalerako egitarau osatuaren berri hurrengo alean emanen dugu.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

Etxe Ardi Gazta
LIZUN
GAZTANDEGIA
Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 862

BELARRA JITEZKES
DONOSTIA · 948 450 306

ZOANSA
SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI
MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Benarta, 2 · Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (samera Beratik)
Tel: 948 625 555 · Fax: 948 625 505

ITUREN

Mutikoen eskola zaharra konpontzeko proiektua aurkeztu du Udalak

Espainiako Gobernuko dirulaguntza deialdian eskaera hori egin du

Arkaitz MINDEGIA

Joan den urte akaberan Espainiako Gobernuak udal inbertsioetarako dirulaguntzak jasotzeko deialdia zabaldu zuen eta gure eskualdeko bertze herriek bezala, Iturengo Udalak bere proiektua aurkeztu zuen: mutikoen eskola zaharraren egitura konpondu nahi du, etorkizunean mediku kontsulta egiteko asmoz. 84.423 euroko laguntza iragarria da.



ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

Mutikoen eskola zaharra biltegi bezala erabiltzen du Udalak.

Alazne eta Iker bertsoan

Alazne Untxalok eta Iker Gorosterrazuk Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken-laurdenetan parte hartu dute. Alaznek lehen saioan parte hartu zuen Auritzen eta seigarren geratu zen,

Iker, berriz, otsailaren 7an Igantzin jokatuakoa laugarren saioan izan zen, eta laugarren sailkatu zen.

Saridun bila

Ibintza Kultur Taldeak

urtarrilaren 5ean, Errege bezperan, egin zuen Eguberrietako zozketan hiru sarietatik bi banatu ziren, baina hirugarren sariaren irabazlea ez da oraindik

agertu. Saritua 1.489 zenbakia da eta bai-nuetxerako bi sarrera daude jokoan. Saritutako boletoa Herriko Ostatuan saldutakoa da.

ESKUALDEA

7 herritako gaztetxoak ingelesa ikasten

ttipi-ttapa

Eskualdeko hainbat ikastetxetako ikasleek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak antolatu duen *English Week* kanpainan hartuko dute parte. Almandoz, Beintza-Labaien, Elizondo, Eratsun, Ituren, Leitza eta Lekarozko 5. eta 6. mailako eta DBH 1.eko ikasleak izanen dira Irunberriko egoitza batean ingelesa ikasten ariko direnak. Ekainera bitartean, Nafarroako 900 ikasleek bisitatuko dute Irunberriko egoitza, eta gehienez 50 ikasle izanen dituen talde bakoitzak bortz egun igaroko ditu han, astelehenetik ortziratera.

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Donamaria'ko Benta

Menu mexikar gastronomikoa 2009-05-24

- 20€ pertsona bakoitzeko
- Kantina bakaria eragutzeko sukaldari mexikarra

Erreserba egin behar da: 948 450 708

APARAN, S.A.
BOIXOLAILA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 060
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA

Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Tolbera auzoa - LEKARIZ
948 452221 - 426 404317

LINDDURRENBORDA
Najar auzoa - LEZAMA
948 427212

EZKURRA

Elizako erlojua mekanizatzeko proiektua aurkeztu du Udalak Nafarroako Kutxan

Zuk aukeratu, zuk erabaki egitasmoaren bitartez laguntza eman daiteke

Fernando ETXEBERRIA

Aitzineko aldi batean aipatu bezala, Udalak Elizako dorrean dagoen erlojua mekanizatu nahi du eta horretarako lanean hasi da: besteak beste, Altsasu, Elizondo edo Iturengo erlojuekin lan bera egin duen Iruñeko San Martin erloju-dendara jo du.

Bestalde, lan horien gastuari aurre egiteko Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* egitasmoan aurkeztu du proiektua eta horrela, Nafarroako Kutxako bezeroa den edozeinek eman ahal izanen du laguntza.

Joan den urtean *Ezkurako baserri eta borden argazki bilduma* liburua subentzionateko aukera eman zitzairen Nafarroako Kutxako bezeroei, eta guztira 5.400 euro lortu ziren.

Ezcurraren etorkizuna

Malerrekako bizilagunak gehien kezkatzen



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Udalak mekanizatu egin nahi du Elizako erlojua.

dituen gaietako bat biztanleriaren beherakada da. Ezcurraren kasuan, esaterako, azken 10 urteotan 50 herritar gutxiago daude. Gaur egun, 183 lagun daude errol-dan, baina horietatik 49 herritik kanpo bizi dira.

ADINEZ, GEHIENAK NAGUSIAK

134 herritarren adinak ere kezka sortzen du. Izan ere, 18 urtetik beheitikoak 7 baino ez

dira; 18-30 urtekoak 16 dira; 30 eta 40 urtekoak 15; 40 eta 50 urtekoak 19; 50 eta 60 urtekoak 27; 60 eta 70 urtekoak 22; 70 eta 80 urtekoak 20 eta 80 urtetik goitikoak 8.

77 urte baino gehiago dituzten 50 lagun bizi dira Ezkurran. Gazteen artean, berriz, 30 urtetik beheitikoak 23 dira, 18 urtez azpikoak diren zazpiak kontuan hartuz.

Udal artxiboa begiratu eta 1824. urtera joz, aldea oso handia dela ikus daiteke. Urte hartan, 593 ziren errol-datutakoak. Gisa berean, 172 ziren 16 urtetik beherakoak eta 85 lagun 50 urte baino gehiagokoak.

Edonola ere, biztanleria igotzea posible da. Etxe eta pisu berriak eraiki dira eta jende gaztea jarri da horietan bizitzen, momentuz, ezkongabeak.

Obra berriak

Krisiari aurre egin eta langabezia murrizteko Espainiako Gobernuak Ezcurrarako iragarri dituen ia 30.000 euroak Zurginearen ondoan dagoen bidea zabaltzeko erabiliko dira. Hartara, kamioiak arazorik gabe pasatu ahal izanen dira.

Horrez gain, herria zeharkatzen duen errepide zatian abiadura murrizteko bi oztopo paratzea ere onartu du Udalak. Eskolako autobusaren geltokian ere markekin jarriko da.

Javieradara autobusa Doneztebetik

Doneztebeto Erreka Kirol Elkarteak Javieradara joateko autobusa antolatu du martxoaren 14rako. Izena emateko epea zabalik dago eta martxoaren 7ra bitarte izanen da horretarako aukera. Titi ostatura joan edo 948 450271ra deitu behar da.

Plakodur
Edukazio eta Plakodur

Eskainia edo plakodur ez egoniko maha gutxietsako lanak

Sabara • Parais • Altsasu • Izurzunbait
Euzko lurralde osoan

info@plakodur.com • 943 008 544
www.plakodur.com

Ibon Urtiaga
fisioterapia zentroa

- Masaje lasaigarria
- Elektroterapia
- Kirol masajea
- Bizkarreko mina
- Kirol eta lan lesioak

Tfno: **948 250 221**
606 266 077

Erietokieta kalea 9 behea. 31007. Iruña

SALDIAS

Elurrez mozorrotu da herria inauterietan

Giro eta umore ederrean joan dira

Markel LIZASOAIN

Aurten ere egin dira inauteriak Saldiasen, eta, aspaldiko partez, behar den garaietan, fe-deak eskatzen duen bezala.

Ortziralean, herriko ostatuan alde-aldeko gosari bat egin, eta puskak biltzera abiatu ziren dozena bat gazte baserrietara. Matteo akordeoilariarekin batean ibili ziren klase guzietako mozo-roak: mexikarrak, *cowboyak*, kupoi saltzailea, Heriotza bera, eta, hari desafio eginez, 110 urteko amatxia. Soto del Realetik ihes eginakoak ere baziren, Saldiasko inauteriak ospatzeagatik eskapu eginak.

Urrutinan hasi, eta Lotzabianen barrena, Loprengo bordara joan ziren kantari. Handik gero, Azkarateko bordara salto batean. Labaienen ere inauteriak zirela aprobetxatuta, kortesiazko bisita egin zuten. Ansolanzeneko Xabiren dendarra joan ziren lehenik, bai esku zabalik hartu ere hark. Handik, Zortzikoa eginez, Labaiengo elkartera sartu ziren umore onean. Puska batez tertulian aritu ondoan, Saldiastik heldu zen basantz jakia usaina hartuta, Taberneran bueltatu ziren afari goxo bat jatera. Inoteri bigarrean, be-

rriz, zuriz beztituta ernatu zen herria. Musaldibatekin hasi zuten eguna; gero, gosari-bazkariarekin indarrak hartu, eta etxez etxe abiatu ziren sekulako elur zopekin. Haatik gelditu ziren erronda egin gabe!, eta, Agerralde akordeoilariaguardasolarekin babestuta, ahal zen bezala ibili ziren orain karrikan, orain sukaldeko berokian.

Afaltzeko ere, komeriak. Labaiengo maldan ez gora eta ez behera gelditu ziren bertsolarien autoak elurrarengatik. Behinik behin, lau-laukoan joan eta ekarri zituzten. Etxetik ateratzea nahiko egin zuten Julen Zelaietak eta Egoitz Ze-



ARGAZKIAK: M. LIZASOAIN

Goiko argazkia, ortziralarekin ateratakoa da, gazteak baserrietan ibili zirenean. Behekoan, berriz, argi ikus daiteke elurrak ez zuela jaia hondatu.

laila *Kontxak*; hori gutxi ez, eta zirtu politikak bota zituzten afalondoan. Herriko zenbait gazte ere animatu ziren kantatze-

ra, eta giroa bikaina izan du zen. Gaua akitzeko, Agerraldek dantzaldia eman zuen ostatuan berrean.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



ttipi-ttapa laguntzeak BADU SARIA

DESKONTUAK. Hemen ondoan ikusten dituzun deskontu eta abantaila guztietaz aprobetxatzeko, **oroitu TXARTELA beti sakelean** eramateaz, **dendariari erakusteko** Nortasun Agiriarekin batera.

ZOKKETAK. Urte oso-osoan, **hamabostetik behin, hamaika zokketa** eginen dira. Horien berri emanen dizugu ttipi-ttapa aldizkarian, ttipi-ttapa telebistan eta www.ttipi.net webgunean.

ALDIZKARIA DOHAINIK. TXARTELA erosten duenak **dohainik** hartuko du etxean **ttipi-ttapa aldizkaria**.

Eta jakinzazu TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA-ri eman diezun diru kopuruaren **%20a desgrabatuko** zaizula heldu den urteko **Errenta Aitorpenaren kuotatik**. Horretarako, heldu den urte hasieran igorriko dizugu etxera Errenta Aitorpena egiterakoan aurkeztu behar duzun **Ziurtagiria**.

informazio gehiagorako deitu

948 63 54 58

info@ttipi.net

ttipi txartelarekin **beti irabaziko duzu!**

deskontuak

Hemen ageri diren komertzio eta zerbitzu guztietan erabil dezakezu

auto eta bizikleta tailerrak	auto eskolak	Semper autoeskola SEMPER BERA %10 matrikulan	AYLA argazkigintza - fotografia AYLA Argazki-denda BERA %10 kopia digitaletan, Nortasun Agiriko argazkietan
BERAUTO BERAUTO Tailerra BERA %5 errekanbioetan	DATUCELAY ELIZONDO %10 bateria eta amortiguadoretan	argazki-dendak	GOIKO GOIKO • BERA www.fotogoiko.com %10 kopia digitaletan
Sansinena garagea SANSIÑENA ELIZONDO %10 olio-aldaketetan	KATEA BIKE BERA %5 konponketetan	FOTO MENA MENA Argazki-denda ELIZONDO %10 kopia digitaletan	ZALDUA Argazki-denda DONEZTEBE / ELIZONDO %10 kopia digitaletan
arropa-dendak	bixkiak BIXKIAK LESAKA %10eko deskontua	KATTALINGORRI KATTALINGORRI ELIZONDO %10eko deskontua	bitxi-dendak
EDURNE • BERA %5eko deskontua, 30€tik gorako gastuan	FANTXIKE FANTXIKE • ELIZONDO %10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan	ETXARTE ETXARTE Bitxi-denda LESAKA %10eko deskontua	estetika zentruak
IPINGI IPINGI • ELIZONDO %10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan	JUAN J. PIKABEA PIKABEA • DONEZTEBE %10 [galtza marka batzuetan izan ezik]	etxe-tresnak	AMAIA • DONEZTEBE %5 kosmetikan, %10 oparietan
haurren denda	POTTOKI POTTOKI • ELIZONDO %5 oparitzeko artikuluetan	lentzeriak	DONEZTEBE/ELIZONDO %10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan
kirol dendak	Agara AGARA • BERA %5eko deskontua kirol artikuluetan	Denē DENĒ LESAKA %10eko deskontua lentzerian	liburu-dendak
IPARLA kirolak IPARLA • ELIZONDO %8ko deskontua, 30€tik gorako gastuan	ZELA Kirolak BERA %5eko deskontua	nafarpres NAFARPRES • ELIZONDO %10 liburu eta ikas materialetan. Testuliburu eta bideoak ezik	MAIMUR MAIMUR • LEITZA %10 oparitzeko artikuluetan
optikak	ARGIBEL OPTIKA ARGIBEL Optika DONEZTEBE / ELIZONDO %10 anteoju graduatuetan	tindategiak	JAIONE tindategia JAIONE • DONEZTEBE %10eko deskontua, 12€tik gorako gastuan
INTZURI INTZURI Optika LESAKA %10eko deskontua	OSTARGI OSTARGI • BERA %10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan	zapata-dendak	OSTIZ OSTIZ Zapata-denda DONEZTEBE %10eko deskontua
pentsuak	MENDAUR • DONEZTEBE %5eko deskontua zakur eta katuen pentsuan	KALOTXA • BERA %5eko deskontua, 18€tik gorako gastuan	TXINELKA • LESAKA %10eko deskontua

Loreak eta landareak

Ezkabarte industrialdea, M1
31194 ARRE (Nafarroa)
Tfnoa: 948 196 453
Faxa: 948 196 351
basartea@basartea.com
www.basartea.com



basartea

Ingurugiro eta basoen proiektu
eta ikerketak

Garden Center

Endanea

Zatuz eta pasa momentu eder bat lore eta zuhaitzen artean

Igande eta astelehenak 9:00 - 14:00

Asteartetik larunbatera 9:00 - 20:00

Jaizubia Auzoa, 40 • HONDARRIBIA

Tfnoa: 943 641 710 • www.endanea.com

ENDANEA MINTEGIA, INGURUKO LORE MINTEGIRIK EDERRENA

- Fruta-arbolak eta larrosak aldatzeko sasoia
- Larrosak: 40 kolore, estilo eta usain ezberdinetakoak
- Fruta-arbola txertatuak. 60 klase ezberdin (zain hutsean, tiestoetan)
- Sagarrak (jatekoak sagardokoak), udareak, gereziak, muxikak, brinoiak, kiwiak...
- Fruta-arbolak neguan zaintzeko, xomorroen aurkako produktuak

2x1
FRUTA-ARBOLETAN

2 hartu eta 1 pagatu
Zain hutseko landareak (Roiz Desnuda)

2x1
ZIKLAMENAK

2 hartu eta 1 pagatu

3x2
PENTSAMENDUAK

Carlos Txoperena

mendi garbiketak eta landaketak

ITXITURAK



Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA

BAXERRI



- Lorategien zainketa
- Mendiko lanak

616 243 530



LABORANTZAN • ZABARDIA



HIDROEREINTZA

Sinplifikazio
irratziak
funtzioak

KIMAKETA BEREZIAK

Zuhaitzak
arboles



Zuhaitzak
arboles

FERNAN NABITORENA LARRALDE
Nabizte-kalea, 21
48940 BILBAO

948 407 334
948 631 199

Fruitu arbolen kimaketa



Sagarrondoa eta udareondoa

Arbolaren adaburuan bost adar nagusi utzi. Enborrharen altuera desberdinetan hasi behar dira eta norabide desberdinetara zuzenduak.

Beharrezkoa balitz, adarrak pixka bat okertu behar dira eta soka edo zinta batekin lotu. Adar nagusietatik ateratzen diren adaxkak ere urtero kimatu behar dira erdiraino.

Adaburuaren hazkuntza lasterragoa izateko, komeni da udan kimatzea. Kimuen hiru laurdenak kimatu eta, dauden bezala utzi, adaburuaren adar nagusien luzapena diren kimuak. Adarrak horizontalki okertu eta lotu, horrela, kimu berriak erazagosortuko baitira. Garrantzitsuena barnealdera hazten diren adarrak kentzea da.

Aranondoa

Udan kimatzen da eta kimatzerakoan adaburuan 3 edo 4 adar nagusi utzi behar dira. Beharrezkoa bada, adarren arteko tartea handituko dugu, adarren artean kuña (falka, ziri) bat sartuz, bata bestearen parean hazteko. Bi urtetik behin "mantenuko kimaketa" behar du (bertikalki hazten diren adarrak)

Gereziondoa

Arbola "ardatz" forman kimatu behar da eta 2,5 - 3 metroko altueran. Gereziondoa abuztuan kimatu ohi da.




Lorategiko belarraren gaixotasunak

Gaixotasunak saihesteko gomendioak:

- Komeni da belarra goizetan ureztatzea.
- Belarra lehorra dagoenean moztu.
- Ahalik eta garbien eduki: bildu belar gainera erortzen diren hosto eta adarrak
- Zuhaitz eta zuhaiska gehiegi ez landatu, hauek argia kentzen diote belarrari.
- Udaberrian, saihestu ongarri nitrogenatu gehiegi.
- Soro berrietan arrisku gehiago dago onddoen infekzioak hartzeko. Kasu gehiago egin behar zaio lehenengo bi urteetan.

Gaixotasun batzuk:

- Dolar orbana: maiatza eta iraila artean ateratzen da. Orban txikiak, gorribeltzak.
- Rhizoctonia: uztaila eta urria artean. Berde ilun koloreko eraztunak, egunean zehar marroi kolorea hartzen dute.
- Pitium: ekainetik irailera. Zelai berrietan orban ilun handiak sortzen dira.
- Moho Lamoso: ekaina eta iraila artean. Kolore griseko orbanak, belarra haztea eragozten dute.



Kontuan hartzekoak



Toki eguzkitsua



Toki erdi-itzailean



Toki itzailean



Loratzte
hilabeteak



Landarearen
altuera



HORTENTZIA URDINA

Landare gogorra eta iraunkorra da. Loreek denbora luzez irauten dute eta udazkenean lore lehorren zentroak egiteko aproposak dira.



Elan-erria 1,5m



“ELSTAR” SAGARRONDOA

Poliki hazten den sagarrondo da. Usain oneko fruta ematen du. Haragi mamitsua eta zapore garratza du. Bitamina ugariko sagarrak dira. Urrian eta azaroan ematen ditu fruituak.



1,5m



JAPONIAR WISTERIA

Landare igokari politenetako bat. Indartsu hazten da. Hasieran zuhamuxka berde bat da. Hazten doan heinean hasten dira hostoak ateratzen.

Loreak more ilun koloreak dira, zintzilikariak eta kolore deigarria dute.



Mai-Eta 4m

Ilargiaren eragina

ilargi berria

Utzi lurrari 'atseden hartzen'.

Kimatzeko sasoia da baina ez haziak ereitekoa.

ilgora

Landareen izerdia biziago ibiltzen denez, momentu egokia da txerto-lanak egiteko eta ereiteko.

ilargi betea

Ez da kimatze lanak egiteko tenorea. Bai ordea lurra ongarrizatzeko.

ilbehera

Ez da ereiteko momentu ona, lur azpian hazten diren produktuentzat izan ezik. Generalean, landareen dinamika moteldu egiten da egun hauetan.



Goiko
LOREZAINNTZA

- Diseinuak
- Ereintzak
- Landatzeak
- Ureztatze sistemak
- Mantentimenduak

LOREATEGI ZERBITZUAK
T. 948 604 888 M. 607 848 832

ESTHEA

Eluak eta epulogok
ipar-Oren dira
kutsua, ardoaren
erretsuak,
sentitu, zym-ak...
Loredenda

NARBAITE • Iru-irrua errep.
948 59 22 00 • 948 58 09 71

ALTZURI

MENDI LANAK • ESKABAZIOAK
GARRAIOAK • ZERRAKURAK
GARBITZE MEKANIKOAK

Leku Eder Berritu • ZUPA SARBILA
Tel/Fax • 948 438 504 • 438 867 287 • 499 461 394
altzuri@altzuri.es

Merkaopari

DONETZEBEN
ELIZONDON • BERAN

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Arategiak apantzetako aukera gabela

Frain Auzoa • LESAKA • 948 637 826

TELLETXEA
Lorezaintza

Paisajismoa
Lorategien sortzea eta diseinua
Ureztatze automatikoen instalazioak
Kimatzak
Mantentze lanak

John Telletxea
Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
Otxango industrialdea, 18. jabilina
51770 LESAKA (Nafarroa)
tel. 619 418 683 - faxa 948 637 049
john.telletxea@hotmail.com

Lore-denda

VENTA
PEIO

Landi Flor

Barazkiak • Etxe barneko eta kanpoko loreak
Fruta-arbolak • Zuhaitzak • Ureztatzeko tresnak
Hesiak eta itxiturak • Lorategi eta terrazarako
apaingarriak • Plastikozko eta lurrezko loreontziak

**DENBORALDIKO LANDARETAN
ESKAINZA BEREZIA**

Larunbat eta igandetan irekia

Bera (Administrazioa)

31780 BERA

Tel 948 625 130

Faxa 948 625 123

Dantxarinea

31712 URDAX

Tel 948 599 389

Faxa 948 599 446

Ibardin

31780 BERA

Tel 948 630 719

Faxa 948 631 306

Luzaide

31660 LUZAIDE

Tel 948 796 014

Faxa 948 790 181

GIZARTEA



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendialdeko Eusko Alkartasunako ordezkariak Nafarroako EAKo presidentearekin eta zuzendaritza batzordeko kideekin bildu ziren otsailaren 11n.

Urak hartzeko arriskua duten lurretan eraikitzeko arazoak moldatzeko batzordea eskatu du EAK

Mendialdeko udal ordezkariak eta Nafarroako Gobernuak osatuko lukete

ttipi-ttapa

Kantauriko Ur Konfederazioak iaz onartutako Inundabilidadede Planaren arabera, urak hartzeko arriskua duten lurretan eginak daude mendialdeko hainbat herri. Plan horren arabera, ez da posible erreka bazterretik ehun metro baino guttiagora eraikitzea. Horrek etorkizunera begira hainbat arazo sortuko lituzke gure herrietan, etxeak edo lantegiak eraikitzeko tokirik gabe utziko bailituzke. Arazo honi aterabidea eman asmoz, hilabete baten buruan Baztan, Bertizarana, Bortzirriak eta Malerrekako udal ordezkariak eta Nafarroako Gobernuak osatutako batzordea sortzea proposatu du EAK eta, Na-Baiko bozeraimalea den neurrian, proposamen hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko du Maiorga Rami-

rezek. EAren ustez, eraikitzeko arazo hauek krisiaren eragina areagotzen ahal du te eta soluzioa eman behar zaie, «*herrien garapen ekonomiko, sozial eta urbanistikoari ahalik eta kalte guttien egiteko*».

Mendialdeko EAKo udal ordezkariak, Nafarroako EAKo presidentearekin eta zuzendaritza batzordearekin bildu ziren otsailaren 11n Iruñean. Inguru honetan lana segurtatzeko lur industrialak egokitzeko beharra ere antzeman zen bilera horretan. N-121A errepideko lanak gibelatuak daudela eta honen sortzen dituen eragozpenak ere azpimarratu zituzten mendialdeko EAKo hautetsiek. Beratik errepide honetara ateratzeko dagoen segurtasun eskasaz eta Iberbandaren zerbitzuaren gorabeheraz ere aritu ziren.

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

09

www.nafarroakotxapelketa.com

Final-aurrekoa:

Otsailak 21

Goizueta

Udaletxeko

ganbara

17:30

Nafarroako
Bertsotzale
Elkartea

Laguntzailea:

ttipi-ttapa

ARANO

Heinekeneko langileek ontzat hartu dute zuzendaritzarekin lortutako aurreakordioa

Aurrejubilazioak eta beste lantegietan bi urteren buruan lanean hasia aurreikusitako da

ttipi-ttapa

Heineken lantegiko langile gehienek ontzat hartu dute otsailaren 9an egindako batzarrean Langile Batzordeak (ELAko 5 ordezkari, LAB-eko 3 eta UGTko 1) zuzendaritzarekin lortutako aurreakordioa. Langileen %75ak onartu du eta laister behin betiko akordioa sinatu-

ko dute.

Gaur egun 82 langile ditu lantegiak, horietatik 68 langile finkoak dira, 12 langile finko etendunak eta 2 ebentualak. Lantegia itxiko dela gauza jakina da eta poliki-poliki martxotik aurrera hasiko omen dira produkzioa jeisten. Onartutako akordioaren arabera, 44 langilek au-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urte akaberan iragarritakoa beteko du zuzendaritzak eta herriko lantegia itxi egingen du.

rrejubilazioa hartuko dute; 12 langile enpresako beste lantegietara joan dira eta beste batzuk lagundutako bajak hartuko dituzte eta banaketa enpresetan lanean hasteko aukera izanen dute.

ELA sindikatutik ongi baloratu dute plana-

ren edukia, «nahiz eta enpresa ixtea inoiz ez den berri ona». Sindikatu honen ustez, «langileek eta sindikatuek egindako presioari esker lortu da akordioa, Nafarroako Gobernua-
ren jarrera erabat pasiboa izan baita».

Aurrejubilazioa hartzeko

ko aukera izanen dutenak 2009, 2010 eta 2011 urteetan 50 urte beteko dituztenak dira. Lagundutako baja hartzen dutenek, berriz, lan egindako urte bakoitzeko 55 eguneko soldata jasoko dute eta horrez gain, beste 12.000 euro ere bai.

ARESO

Kaleak eta etxeak apaingarriz beteta giro ederrean joan dira inauteriak

Aurten, estreinakoz, etxeak zapi eta globoekin ikusi ditugu

Juana Mari SAIZAR

Giro ederrean joan dira inauteriak. Gainera, aurtengoek berrikuntza batzuk izan dituzte. Izan ere, antolatzailerik etxeak apaingarriz borondatea eskatu zuten eta jendeak ongi erantzun zuen. Koloretako zapiak eta globoak izan ziren apaingarriz nagusiak, eta hauek beste dotoretasun bat eman zioten fes-

tari, herriari alaitasuna emanez.

Bestalde, eskolako umeen betiko karroza ere ibili zen herrian eta baserri eta herriko eskeia ere izan genituen lagun artean. Iluntzean musika urtero bezala, baita afalondoren ere. Igandea egun motelena dela-eta, arratsaldean antzerki emanaldia izan zen Gorrin-go taldearen eskutik.



ARGAZKIAK: ESTITXU AZPIROTZ

Haurrek, gazteek zein helduek denok izan dugu inauteri hauetan gozatzeko aukera.

GOIZUETA

Mozorroen Taldeak dena prest dauka igandean hasiko diren inauterietarako

Egun eta gaupasa izanen da hilaren 28ko Kontuen Egunean

Esteban AROTZENA
Igande honetan, hilak 22, Izkina tabernan afaltzera elkartzen direnean emanen diote hasiera Mozorroek hurrengo astearte arratsa arte iraungo duen inoteren eromenari. Aurretik, jakina, ostiraleko eskolako haurren eta irakasleen desfilea eta igande arratsaldeko gaztetxoaren Zagi Dantza eta plaza-ko berbena ospatuko dira ohiturak agintzen duen bezala.

Astlehenean eta arteartean ere, ohiturei jarraituko zaie, eta larunbatean, hilaren 28an, parranda luzatzeko balio-ko duen aldaketa prestatu dute Mozorroek. Jakina den bezala, kontuak egiten zituen taldeak egun horretako afa-londoren. Ba, aurtan,

eguerdian hasiko dute festa, kalejira eta bazkariarekin. Beraz, kontuak eta gainerako betebeharrak arratsaldean egingen dituzte, eta ilunabarra eta arrats osoa parrandarako geldituko zaie.

Azken urteetan hainbesteko indarra hartu duen egun hau are indartsuago izan liteke erabaki horri esker.

Xabierko Gaztelura

Arkupeak-eko herriko komisiok jakinarazi digunez, Xabierko Gaztelura peleginazioa antolatu du martxoaren 12rako. Meza, puntako bazkaria eta dantzaldia izanen da egunean zehar 30 euroren truke. Hil honen 27a baino lehen eman behar dira izenak.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Zagi Dantzak ez du hutsik egingen aurtan ere.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Nafarroako Bertsolari Txapelketako saioa larunbatean Iñoteen egutegiarentzat osagarri ederra da larunbat honetan ospatuko den Nafarroako Bertsolari Txapelketako saioa. 17:30ean Ganbaran burutuko den hau finalerdietarako lehen emanaldia izanen da, eta Julen Zelaieta txapeldunarekin –argazkian–, azken laurdenetan sailkatutako bost bertsolarik kantatuko dute.

Martxoaren 17tik 26ra, berriz, Andaluziara joanen dira Arkupeak-ekoak.

Baialtzinikin...

Nafarroako Gobernuak ia 12.000 euro eman dizkiola Udalari

«komunalaren defentsa juridikoan egindako gastuagatik»?

LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua www.ttipi.net eta **Ttipi-Ttapa** telebistan ere aurkituko duzu

Ikastetxe itunduetan 2009an Euskal idazleak eskolan kanpaina antolatze-ko Ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 10zk. 2009/01/23* 524/2008 EBAZPENA, abenduaren 12koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2009/10/Anuncio-4/
Nafarroako Gobernuaren Euskararen

Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketen egitura eta antolaketa arautzen dituen, eta agiri hori eskuratzeko 2009ko deialdiak onesten dituen ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 151zk. 2008/12/12* 465/2008 EBAZPENA, azaroaren 14koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/151/Anuncio-0/

Nafarroako kooperatiba eta lan sozietateetan enplegua sustatu eta lehia-kortasuna hobetzeko laguntzak emateko deialdia onesten duen ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 10zk. 2008/12/31* 4180/2008 EBAZPENA, abenduaren 18koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2008/159/Anuncio-8/

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da. Kontsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean

LEITZA

Udal ordezkariak aho batez onartu dute behin-behineko aurrekontua

3.674.903 euroko aurrekontua adostu zuten ilbeltzaren 29an

Asier IMAZ

Udalbatzak aho batez onartu ditu 2009. urterako aurrekontuak. Ohiko udal bilkura ilbeltzaren 29an egin zen, eta EA, PP eta UPNren ordezkariekin batera hautetsi independentistek bozkatu zuten. Azken hauek aurkeztutako behin-behineko aurrekontuak alderdien ordezkarien babesa eduki zuten. Behin-behineko aurrekontua 3.674.903 eurokoa da.

DIRU-SARRERAK

Diru-sarrera gehien tokiko entitateen administrazio orokorreko transferentzien bidez jasoko da. Honen barnean, Ogasun Lokaleko Fondoari dagokio diru kopururik altuena, 650.000 euro.

GASTUAK

Udalak aurreten bilduko duen dirua gastuak ordaintzeko izanen da. Gastuen atalean, inbertsio errealetara bideratuko da diru gehien: 1.312.610 euro. Honen baitan, biribilguneko obrak, Patxi Arrazolako zoladura, eskolako hobekuntzak, zabor bilketarako ibilgailua, UE-32ko urbanizazioa eta mendi-aldaketak eta

garbiketak azpimarratu behar dira.

Ondasun arrunta eta zerbitzu gastuen atalak 1.027.136 euro bereganatuko ditu. Atal honetan konponketak, mantenimendua, materialak eta abar sartu ditu Udalak. Herriko jaietara bideratuko den dirua ere hemen ageri da. San Tiburtzio Jai Nagusietarako, adibidez, 75.000 euro aurreikusitako dira.

Mendi taldearen irteerak

Mendibil mendi taldeak urteko batzarra egin zuen otsailaren 13an Aurrera elkartearen. Urteko asanbladan elkartutako bazkideek bost puntuko gai zerrenda eztabaidatu zuten.

Lehen puntuan 2008ko balantzea egin zuten. Ondoren, egoera ekonomikoa, aurrengo plana eta blog-aren

aurkezpena eztabaidatu eta burutu zituzten.

2009RAKO EGITARAUA

Martxoan helduentzat eta gazteentzat ekitaldi bateratua prestatu dute. Ligi-Athereiko Maskarada Taldeak Xiberoan egingo duen Maskarada ikustera joango dira.

Apirilaren 25ean, helduentzat Leitzako mugarren itzulia prestatu dute. Hobe esanda, itzuliaren lehen zatia. Gaz-

teek, berriz, bizikleta irteera egingo dute. Kultur Astearen baitan, mendiko eskia Kaukason, 2008 proiektioarekin batera, argazki lehiaketa eta erakusketa antolatuko dituzte.

Ekainerako Urdaibaira asteburu pasa egin nahi dute, uztailean eskalada, eta abuztuko atsedenaldiaren ostean, irailaren itzuliko dira. Helduentzat Baztango mendiak ezagutzeko aukera prestatuko dute. Ume eta gazteentzat, berriz, ibilaldi neurtua antolatu nahi dute. Hilaren 19an Aurrera Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte.

Urtea amaitzeko, Nafarroako Kluben Eguna, Ontto biltzea, Toloñoko mendizerra, Eguzkiko muinoa... aipatu dituzte.

Torturaren Aurkako Eguna

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta Euskal Herriko herri ugaritan ekimenak egin ziren hilaren 13an. Baita Leitza ere. Joxe Agirre torturapean hil zela 28 urte bete ziren egun horretan. Atakabeltz Gaztetxean bideo emanaldia egin zuten arratsaldean eta iluntzean Lopeneko iturrian elkarretaratzea.



ARGAZKIA: A. IMAZ

Luzek finalerdietarako txartela lortu du

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren hirugarren kanporaketan bigarren postua lortu zuen Luzek Betelun. Zigari Elkarte leporaino bete zuten otsailaren 8an sei bertsolarik. Han jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren hirugarren azken-laurdena eta seikotean Migel Mari Elosegiri Luze aritu zen. Leitzarrak «gustura» eta «ederki» egoteko adinako saioa egin zuen, finalerdietarako txartela lortuz. Nafarroako Txapelketaren laugarren eta azken kanporaketa, berriz, hilaren 14an, larunbatean, jokatzekoa zen Tafallan eta Diego Riaño herritarra aritzekoa zen.

gaztelu sol
iturgintza
kalifikazioa • saneamendua • gasa
Telefonoa: 948 510 066 • 948 510 156
Faxa: 948 510 856
LEITZA

Pitti
ekabazileak
Tel: 616 513 491
Mendakalea etxea, 34 ZUBIETA

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948 635458

Lea Artibai Unibertsitate Ikasketak

Europako eremura egokitutako ingeniari-tza ikasketak

2009-2010 ikasturteari begira, Europako eremura egokitutako ingeniari-tza ikasketak abiatuko dira Lea Artibai Ikastetxean. Diseinu eta Berrikuntza Ingeniari-tza ikasketak teorikoak eta praktikoak uz-tartuko ditu eta ikasteaz batera, lana egiteko au-kerak ere izango dute ikasleek.

Teoria eta praktika uztartzeko saioak aldez au-rrerrik eginak ditu Lea Artibaiko Ingeniari-tzak. 2005-2006 ikasturtean jarri zuen martxan PBL (proiektuetan oinarritutako ikasketak metodo-logia). Hasieran ikasleek ez zuten ilusio handirik era-kutsi ikasketak modu berri honetara egokitze-ko baina denborarekin eta ikasteko modu berrira egokitu ahala eginaz ikastera ohitu egin dira.

Ikasgai desberdinetan aplikatzen da PBL meto-dologia. Lehenengo mailan %27a 22,5 ECTS (eu-ropear kredituak) eskuratu behar dira PBL apli-katuz. Bigarren mailan eta hirugarren mailan, al-diz, %45a; 37,5 ECTS ikasturte bakoitzean.

Beñat Irazoki Etxalarkoa da. Lea Artibai Ikaste-txean Polimeroen Ingeniari-tza ikasi du eta **orain Berako Hidrorubber Iberican proiektua egi-ten ari da.** Hidrorubberren automoziorako, etxe-tresnenezako, ..., piezak egiten dituzte eta bere proiektuaren helburua produkzio gastuak jaistea da merkatuan lehiakorragoak izateko.

Beñat Irazokik metodologia berrien ara-bera egin ditu bere ikasketak. Ohiko ikas-teko modutik PBL metodologiara alda-tzean zein diferentzia nabaritu duzu?

Diferentzia kristona da. Hasieran asko kosta zi-tzaigun metodologia onartzea, norberarengandik asko eskatzen duelako. Irakaslearen txapa entzun

eta azterketarako hura ikastetik, gai bati buruz lan bat egin eta lan horretatik ikastera pasatzen zara. Batzuetan lana egiteko eskolako apunteak izaten genituen, baina bestetan guk bilatu be-har izaten genuen informazioa eta gu-re apunteak egin. Ikasteko bertze mo-du bat da, buruhauste asko eman eta lan pila bat eginarazten duena, baina la-na bukatu ondoren eta ongi atera ba-da, poztasuna eta lasaitasuna ematen dizu.

Zer eman dizu positibotik zer du negatibotik PBL metodo-logiak? Baliogarria dela iruditzen zait, lan mundurako salto hori txikitzen la-guntzen duelako. Arazoei aurre egiten ikasten duzu, baina beste erara ikasi bagenu, agian maila akademiko han-diagoa lortuko genuke, PBL-k denbora asko ken-tzen duelako. Hala ere, PBL metodoa erabilzen jarraitzea ongi iruditzen zait. Niri ongi etorri zait.

Zer asmo daukazu aurrera begira? Proiektu-arekin 2008ko uztailean hasi nintzen eta 2009ko uztailean bukatuko dut. Bi tutore ditut proiektu-arekin laguntzeko bata enpresan eta bestea es-kolan eta ongi ateratzea nahi nuke horrek iraba-zi ekonomikoak ekarriko baitizkio enpresari.

Enpresari irabaziak eta agian zuri lana. Proiektua amaitzen duzunean zer egi-tea gustatuko litzazuke? Nahiago dut la-nean jarraitu, aukerarik baldin badago behintzat. Beñat Irazokik egin duen bezala zure etorki-



Beñat Irazoki etxalartarak, metodologia berrien arabe-ra egin ditu Polimeroen Ingeniari-tza ikasketak

zuna diseinatu nahi baduzu: Europear erara egokitutako ikasketak egin, produktu berriak diseinatzen ikasi edo daudenak moldatu eta ho-betzen saiatu, experimentatuz eta behin eta berriz praktikan probatuz ikasi Lea Artibaiko Unibertsitate ikasketak aukeran dituzu.

Ikasketak amaitu eta lan ona lortuko duzu.

Informazio gehiago:

<http://uni.leartik.com/>
Tel.: 94 616 90 02

Eskola bisitatzeko ate irekiak


Otsailak 28, larunbata, goizeko 10:00etan

DISEINU eta BERRIKUNTZA Ingeniari-tza

BSc. POLIMER engineering

diseinatu zeure etorkizuna!

ATE IREKIAK otsailaren 28an, larunbata, 10:00etan



Xemein etorbidea, 19 • 48270 MARKINA-XEMEIN • Tel: 946 169 002 • uni.leartik.com

BAZTAN

Ornoz-Mugairiko etengabeko arreta zentroa martxoaren 1ean itxiko du Osasunbideak

14 herrietako alkateek erabakia bertan behera utz dezan eskatu diote Osasunbideari

Maite OTEIZA

Hiru hilabete mantsuago, baina zoritxarrez, Osasunbideak beteko du erranzuena: Ornoz-Mugairiko Etengabeko Arreta Puntuak martxoaren 1ean ateak itxiko ditu.

Nafarroako udalerririk zabalena eta haundiena, 375 kilometro koadro, biztanlegoa arras hedatua, baina larrialdietarako zentro bakarra izanen du Baztanek, Elizondon. Orain dela hiru hilabete, gibelerak bota zuten ideia Osasunbideak, baina nonbait mahai bateko lehen kajoian gelditu zen, edozein momentutan ateratzeko.

Arazo honekin batera, Baztango Osasunbideak eskaintzen dituen zerbitzuak gero eta makurrago daude: mediku falta, zenbait herrietaratu Eguberriek geroztik ez da medikurik gan, erizaina baizik; haur baz-

tandarrak pediatriarik gabe daude, orain dela bi urte pasako pediatriaren baja ez dutelakoz bete...

ALKATEEN ESKAERA

Egoerarekin kezkatuta, herrietako alkateek prentsurrekoa eskaini zuten otsailaren 11n Ornoz-Mugairiko kontsulta atarian. Osasun Sailari Ornozko Etengabeko Arreta Puntua kentzeko erabakia bertan behera uzteko eskatu zioten.

Bittor Elizagoien Ornozko alkatea eta Pello Obregozo Iruritakoa Baztango 14 zinpeko alkateen izenean mintzatu ziren (Elbeten alkaterik gabe daude): «Gure ustez, osasuna arras gai garrantzitsua da eta ez dira baliabideak eskastu behar». Neurri hau aitzinera atez gero, mediku batek eta erizain batek Baztan osoko gaueko larrialdi



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Herrietako alkateak otsailaren 11n eskaini zuten prentsurrekoan.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Baztan Ikastolakoak Santa Ageda bezperan

Hutsik egin gabe, aurtan ere Baztan Ikastolako ikasleak Elizondoko kaleetara atera ziren Santa Ageda bezperan, hilak 4. 11:00etan bildu eta Haur zein Lehen Hezkuntzako ikasleak guztiek elkarrekin egin zuten Jaime Urrutia karrikan urtero egiten duten bidea. Txapela buruan, zapi laukiduna lepoan eta makila eskuan zutela, kantuan aritu ziren Ikastolatik abiatuta. Ttikienak plazatik Ikastolara itzuli ziren, eta nagusienak Zahar Etxeraino joan ziren.

guztien ardura hartu behar harko luketeela gogorazti zuten.

Herrietako kontsultak pixkanaka ixten ari direla eta Elizondoko zentroko zenbait aparatuk kentzen ari direla ere salatu

zuten alkateek: «baztandarrak ez gara bigarren mailako nafarrak, eta oinarrizko zerbitzuak behar eta nahi ditugu. Ditugun zerbitzuak hobetzeko borrokatuko dugu, baina ez dugu ongi ikus-

ten ditugunak murriztea».

Ornozko zentroa leku estrategikoan dagoela ere nabarmendu zuten, Baztan, Bortziriak eta Malerrekaren erdigunean eta N-121en bazterrean dagoelako.

Okindegia	Jatetxea
	
<p>OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan) Espezialitatea parrillan erretako jakietan Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!</p>	
<p>Ordoki Industrialdea Tfnoa: 948 453 403 31713 ARIZKUN</p>	

	 ANTXITONEA Trinketea
	Jatetxea - Ostatua Hotela - Trinketea
	Menu Bereziak Braçao iriatse karrika ELIZONDO
	Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Iruritako Pikotan harrobia irekitzeko eskaera egin dute Balleko Etxean

Iruritan eta Gartzainen proiektuaren kontrako sinadura bilketa abiatu dute

Maite OTEIZA

Pikota parajea Iruritan dago. Eugi aldera hartuz eta kilometro batera, ezkerreko aldean Artxe-kobordara gateko hartzen den bidetik eskuin aldeko aldera. Gartzain eta Iruritarekin muga egiten duen haran bat da.

Askapen Sobrino Eraikuntzak duen harrobiari materiala akitu zaionez, (Iruñe aldetik ekartzen ari da materiala) orain dela lau bat urte Udalarik Pikota parajearen harrobi berria egiteko eskaera egin zion. Urteotan Udalarik galdetuta, deus ez zegoela adierazi izan du, eta une batean jaso zuten proposamena, mahai gainean gelditu zen, promotoreak aitzineratuz ez zuelako egin.

Eguberrietan, Iruritako alkateak Udalaren abisua jaso zuen, Sobrino Eraikuntzak Ingurumen Inpaktuaren txostena eskatu zuela erranez.

Aurtengo ilbeltzaren 23ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean jarduerari baimenaren eskaera plazaratu zen, eta kaltetuek 15 egun eduki zituzten alegazioak aurkezteko.

KONTRA IRURITAN ETA GARTZAINEN

Pikotako Batzordeak honen berri izan orduko,



ARGAZKIA: XABI BALLARENA

Gizakundek eguraldi txarrari aurre egin dio
Orakunde ailegatu baino lehen, Gizakunde Eguna ospatu zen Erratzun. Aitzineko urteetako ohitura aldatuz, aurten desfilea Gorostapolon hasi zen, Arizkunen saneamendu lanak egiten ari direlako. Eguneko eguraldi kaxkarrari aurre eginez, gazteak Gorostapolon elkartu ziren merienda bat eginez, 18:00ak aldera. Gorostapolotik abiatu baino lehen sagardantza bat dantzatu zuten. Herrirat jeisten hasi zirenean, zizerkorak eta elurrak joaldun, Hartza eta mozorrei bidea argitu zien. Amaier, Lekaroz, Erratzu eta Elizondoko sagardantzekin aritu ziren. Uhaldean lehenbiziko geldialdia egin zuten. Sindreri, Xumuxu... herriari buelta eman zioten. Gallartako joaldunek ireki zuen desfilea, eta ttuntuneroak, sagardantzariak, mozorroak, Hartza eta zaintzailea eta Berriozarreko Bizkargain fanfarrea ere han izan ziren. Akitzeko herriko plazan Jantzilo epaitu eta erre egin zuten, eta Etxeleberteko Txokoa Elkartearen 100 lagunendako afari batekin akitutzat eman zuten kanpoko buelta. Afalondoan, Iñigo eta Julen bertsolari zarauztarrek eta Jon Elizetxe bertsolari gartzaindarrak giroa alaitu zuten.

bai Gartzainen eta bai Iruritan ere batzarre baina antolatu zen, duten informazio guztia herri-tarrei zabaltzeko asmoz.

Iruritako batzarrean 200 lagun inguru bildu ziren, aho batez bi erabaki hartu zuten: sinadura bilketa egitea, desadostasunean dauden

herritarren protesta moduan eta herriak abokatu bat hartzea, lege aldetik aholkua emateko. Gartzainen ere modu berean egin zen batzarrea, eta sinadura bilketa, alegazioekin batera, Balleko Etxean eta Nafarroako Gobernuan aurkeztuko dute.

Sobrino enpresaren eskaeran bi proiektu sartu ditu. Batetik, harrobia irekitzeko baimena eta bertetik, Askapen hondakin solidoen birziklatze planta paratzea.

Proiektuan argudiatu dituen gauzen artean, eta adibide bezala dio, inguruan dauden hamabi



PERTSONAIA

Andrea LIZASOAIN

Iñigo Arista lehiaketan saritua bere idazlanarekin

Elizondoko San Francisco Javier Ikastetxe Publikoko Andrea Lizasoain Uterga ikasleak Iñigo Arista erakundeak antolatutako idazlan eta marrazki lehiaketan saria lortu du bere idazlanarekin. 6. mailan ari da Andrea, eta lehiaketaren XXIX. edizio honetan 150 ikastetxetako 4.000 lan baino gehiagoren artean aukeratu ziren 30etan dago berea.

baserri asteburuetan edo bakantzetan bertzerik ez direla erabiltzen. Baina baserri gehienak lehen etxebizitzak dira: Artxe-koborda, Barransoro, Bartolo, Goronsoro, Indakotxea, Oiatenea, Gontxea, Baigorriko eskola, Lezeta...

POTTOKI
Bastanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Telefonoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astelehenean
larunbatara:
8:30 - 13:30
16:30 - 20:00

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Barrutik auzara - Telefonoa: 948 552 043
ORONDOZ · MUGAIRI

BAZTAN

Nafarroako konkista gogoratu dute ehunka herritarrek Amaiurko Gazteluan

Amaiur 1512-2012 Nafarroa Bizirik plataformaren lehen ekitaldia izan da

ttipi-ttapa

Antolatzaileen aurreikuspenak hautsi eta Amaiurko herriak gainezka egin zuen otsailaren 1ean, Nafarroako konkistaren 500. urteurrenaren harira.

Amaiur 1512-2012 Nafarroa Bizirik mugimenduak duela 500 urte Amaiurren Nafarroaren independentzia defendatu zutenak gogoratu zituen otsailaren 1ean Baztango herrian egin zen ekitaldian. Mugimendu honek antolatu duen lehen ekitaldia izan zen, baina ez azkena. Izan ere, «*suaz eta odolaz*» egindako konkistaren bortzgarren mendeurrena bitarte bertze hainbat eginen dira.

PATXI URRUTIA GOGOAN

Mila lagun inguru hurbildu ziren eta Gazteluko kaxkoan egindako ekitaldian, duela bortz mendeko gudariak ez ezik, gaur egun lan politikoagatik kartzelan dagoen Patxi Urrutia amaiurtarra ere gogoratu zuten. Miguel Joxe Ariztia Amaiurko alkate ohia mintzatu zen han, Julian Rekalde oraingo alkatearen ondoan. Plataformako Mikel Lizaso ere hitz egin zuen.

Agur Jauna kantatu eta aureskua dantzatuta herrira jautsi ziren.

Eguerdian, plazan bertze zenbait ekitaldi egin ziren. Virginia Aleman alkateak aipatu

zuen, Amaiurren gertatu zenaren errealitatea ezagutzera eman behar da, «*bortz mendetan nafar belaunaldi ezberdinei kontatu zaienaren ezberdina*».

Villatuerta, Lekunberri (Nafarroa Beherea) eta Gernikako alkateek eta Gaizka Aranguren plataformako kideak ere hitz egin zuten. Patxi Larrale eta Mikel Ortega

txistulariak, Petti kantaria eta Bittor Elizagoien eta Manolo Arozena bertsolariak ere aritu ziren.

Nafarroako Gobernu bosgarren mendeurren honetarako prestatzen ari den jaialdiei dagokienez, «*konkista militarra izan zena ospatu eta Nafarroaren espainolotasunaz harrotu nahi*» izana salatu zuten Aranguren. «*Bere konkista ospatzen duen historiako lehen herria Nafarroa*» izanen dela erran zuen Nafarroa Bizirik taldeko kideak.

Ekimen horren sustatzaileen artean, Ariztia Amaiurko alkate ohia, Floren Aoiz, Gaizka Aranguren, Eugenio Arraiza eta Pello Esarte daude. 2012ko urteurrenari begira, hainbat ekitaldi egiteko asmoa dago.

PINTADAK

Ekitaldiaren egunean, bildutakoak haserrarazi zituen pintadak ere agertu ziren monumentuan idatziak: «*Naparra España da*», «*Gora Española*», «*Viva Cristo Rey*» eta «*Gabatxos maquetos*» bezalako adierazpenekin ernatu zen otsailaren 1eko goiza.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Goiko argazkian ikusten den bezala, monolitoaren aitzinean dantzari baten aureskua dantzatu zuen. Plazan egindako ekitaldietan ere jendetzak parte hartu zuen.



SOULE

hileta artea

Tfnoa: 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN



Eskisaroi

Jaimen Urrutia

Tfnoa: 948 580 013

ELIZONDO



• PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA • SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com

betikopvc@terra.es

Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxe: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)

URDAZUBI

Ortziral arratsaldeko haurren desfilearekin hasiko dira aurtengo inauteriak

Larunbatean atsedean hartu ondotik, igandetik asteartera segituko du besta giroak

ttipi-ttapa

Bertze herri aunitzetan bezala, Urdazubin ere egun hauetan hasiko dira inauteriak. Ortziral hau haurrentzako egun handia izanen da. Mozorroak jauntzi eta trikitalari eta panderojoleen laguntzarekin kalejira egingen dute. Ondotik, eskolan txokolatada izanen dute Urdazubi eta Zugarramurdiko neska-mutikoe.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gazteak giro ederrean ibiltzen dira etxez etxeko eskean.

GAZTEAK IGANDETIK AITZINERA

Larunbatean atsedena hartu ondotik, gazteek igandean, otsailak 22, hasiko dituzte inauteriak eta astelehenean eta asteartean izanen dute segida.

Igandean Dantxarinear barna eskean ibiliko dira Modesto akordeolariarekin. Astelehen eta asteartean, berri, hilak 23 eta 24, 10:00etan elkartu eta herriko gainerako au-

zoetan ibiliko dira gazteak eskean. Aipatu, aitzineko urteetan ez bezala, aurtengoa ez dela afaririk izanen Indiano-baitan, baina pintxoak eskainiko dira, eta horiek herritar guztientzat izanen dira.

Zeharbideko lanak laster hasiko dira

N-121B errepidean egitekoa den zeharbi-

deko obrak laster hasiko dira, eta beraz, Dantxarinear pasatuko den zatian ere laster hasiko dira lanak. 2.718.000 euro inguruko aurrekontua izanen duten obra hauek Azysa enpresak egingen ditu eta lanak hasten direnetik lau hilabete epea izanen du akitzeko.

Bere garaian adierazi bezala, N-121B

errepideko zeharbide berria Dantxarinear barna pasatuko den zatian sei biribilgune eraikiko dira: lehenbizikoa Landibar eta Patxi Etxearen artean; bigarrena bi gasolindegien inguruan; hirugarrena Paco Etxearen parean; laugarrena orain dagoena da, Olazelai Bentaren ondotik dagoena. Bortzgarrena Lapitxurikoa da, eta ho-

netan irteera berri bat egingen da Iparraldera joateko. Behin Ipar Euskal Herriko lurretan sartuta egingen da seigarren biribilgunea.

Bertzalde, uholde arriskuak saihesteko zubi berri bat ere egingen da.

Ordezkaritza politikoa joan den astean bildu ziren horri buruz hitz egiteko.

Turismo kalitatearen bi sari Urdazubira

Nafarroako mendialdeko hainbat establezimenduk Praktika Egokien Eskuliburua jasotzen dute berriki Cederna Garalur Elkartearen eta Nafarroako Gobernuaren eskutik, mendialdeko turismoaren kalitatea hobetzearen alde egindakoagatik. Urdazubira ere bi aipamen ailegatu dira eta horietako bat leizeentzat izan da eta bertzea, Irigoienea Landa Hostalarentzat.

MONTXO ОСТАТВА

Dantxarinearatik 2 km-tara

ТАВЛAKO-DENDА
ANZAN-BORDA - URDAZUBI
Egutero irekia 10:30etik 02:30era

Martiko
Poi Zaban, 4/11
31790 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Martikorekin adierazi eta ondu!

DENDA
GUTUAK
ASTILORREKIN
URDAGALANA

8.30etik
12.30era

14.30etik
17.00etara

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

BURKAITZEA
- ostatu
- erretegia

Zugarramurdiko bidua, 3 km
948 590 280 - URDAZUBI

HELEKINGO
ETXENGO
EDENTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542319
Maitzen eta Yéromokan
SARA

SARA

Turismo bulegoaren egitarauan aldaketa batzuk izanen dira aurten

Mendi bizikleta eta zaldi ibilaldiak ez dira egingen eta kontrabandisten lasterketaz Sara Korrika arduratuko da

Xan HARRIAGUE

Turismo Bulegoak joan den urtarrilaren 29an egin zuen bere biltzar nagusia. Hogei-ta bost bat lagun bildu ziren, eta usaiako egitarauari aldaketa batzuk egitea onartu zuten.

Urteko ekitaldi nagusiekin segituko dute, baina bertze batzuek, berriz, momentuz baztertu egingen dituzte. Idazleen Biltzarrak, udako merkatuak, Telehona eta GR8 ibilaldia antolatuko dituzte aurten ere, mendi bizikleta eta zaldi ibilaldiak, aldiz, ez. Kontrabandisten Lasterketa Sara Korrika elkartearen gain pasatuko da. Horretarako 1.000 euroko dirulaguntza galdetu dute, baina momentuz ez zaie arraposturik eman. Sarako Trail antolatze-

ko, aldiz, dirulaguntza bat emanen zaie. Turismoari begira herriko bisita gidatuak gehiago sustatzen entsaiatuko dira, eta Iruñean eta Donostian egiten diren ferietan parte hartuko dute urte guziz bezala.

Inauteriak asteburuan

Inauteriak gainean ditugu eta larunbatean herriko gazteak etxe etxe ibiliko dira goizetik. Arratsaldean, 19:00ak aldera plaza-rahurbilduko dira eguna Herriko Etxeko Edantegian finitzeko. Biharamunean, igandearekin, ekitaldi gehienak plazan izanen dira. Mezatik lekora, Zantzarren auzia izanen da, baita ezusterik ez bada Sarako Kantarien emanaldia ere. Ondo-

tik Ikastolak bazkaria prestatuko du nahi duten guztientzat.

Txartelak Herriko Etxeko Edantegian hartu behar dira aitzinetik.



ARGAZKIA: X. HARRIAGUE

Arrieta eta Peyresaubes txapeldun

Mathieu Arrieta eta Thomas Peyresaubesek haien Frantziako hirugarren txapela jantzi dute ezker pareteko Joko Garbin. Finalak otsailaren 8an jokatuko zituzten Angelun. Paueren aurka aritu ziren, eta erraz hartu zituzten menean 40 eta 23. Argazkian Jean Michel Jauregi Sarako Izarra taldeko kidearekin ageri dira.



ARGAZKIA: X. HARRIAGUE

Giro ederrean bertso afaria

Miren Artetxek, Angel Mari Peñagarrikanok, Andoni Egañak eta Amets Arzallusek bertso ederrak kantatu zituzten joan den urtarrilaren 31n Lur Berri egin zen bertso afarian. Giroa ere polita izan zen. 80 bat lagun bildu ziren erdiak herrikoak eta bertzeak inguruko herrietatik etorritakoak.

m bentamiguel
denda, jatebidea eta ostalua

Ongi zainduta sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Lakorrak
Janaridenda
Urdaitegia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

VENTA DEIG RESTAURANTE

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA

300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hobereenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

SENPERE

Abiada haundiko treinaz mintzatzeko hautetsi guziak bilduko dituen lan taldea sortuko da

Hegoaldeako tren lasterrarekin lotzeko treina egin nahi da

Franck DOLOSOR

Treinbide berri batek zeharkatuko du, beraz, Lapurdi. Horren berri eman die berriki Paueko prefetak Lapurdiko hautetsiei. Orain arte, uste zen linea berririk ez zela eraikiko, bertzeak bertze, dirutzarik ez delako. Dena den, itxura guzian arabera, azpiegitura eraikiko da Europako laguntzei esker. Euskal hautetsiak, hauen artean Christine Bessonart auzapeza, kexu agertu dira beren bizkar eta solasik gabe egin delakotan proiektua. 500 metrako pasabidea eraba-

ki beharko da orain Lapurdi iparretik Hendaia-rat Gipuzkoako tren lasterrarekin lotzeko gisan.

Hegoaldeko lanak hasi dira eta ondoko urtetan abiada haundiko treina ibiliko da lau euskal hiriburuen artean. Treinbide berria Senperereko lurretan ere pasako da, Zirikolatx oihanetan eta 307 bide departamentalatik, baina Bessonartek dio gure herrian uste baino eremu tikiagoa janen duela proiektuak. Treinbidea men-debalderago egiten bada, Donibane Lohizune eta Azkaineko eremuak



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Mozorroen besta

Inauteriak ederki ospatu ziren otsailaren 7an. Ohitura segituz, urteko gaitz eta arazo guzien errua San Pantzarren gain eman eta su eman diote.

hartuko ditu gehiago Senpererekoak baino, baina hori ez da berri ona, halere, senpenterentzat, Bessonarten erranetan.

Gaia hurbiletik segitzeko, lan talde zabala sortuko du auzapezak Herriko Etxeko 27 kontseilariekin, oposiziokokak barne, beraz. Ez da oraino argi non eginen den tren geltoki berria.

Langabezia

Krisia kalte handiak sortzen ari da Senperen

ere. Enpresak, eta beraz, langileak, zailtasunak jasaten ari dira. 33 langileetatik 7 kanpo eman beharko ditu Eurotech Lizardia aldean dagoen lantegiak. Saltokietako altzari eta tresnak ekoizten ditu eta lana tikitutu eta 7 lagun kanpo ematea bortxatua izan da.

Darrigues okindegian ere hiru lagun lanik gabe geldituko dira martxoaren lehenean betiko bururatuko baita ogia etxez etxe autoz erama-

teko banaketa. **Ttipi-Ttapa**ri erran dionaz, okinak ez du gogotik hartu erabakia baina badira urteak gero eta ogi gutiago saltzen dutela etxez etxe eta denbora berean gastuak gero eta haundia goak dira. Gaur egun, 13 lagunek lan egiten dute baina 2007ko uholdeekin zailtasunak jasan dituzte. Aseguru etxeek kaltetu zen materiala ordaindu arren, hiru hilabete gaitz gaitz golpea eman dio.

Juan da bi mila ta zortziarren urtia hilabetia otsaila eguna hamazazpita izan zitzazuna zure bihotzeko argia nahizta pasatu den urtia zainan urte luza zu gabe hain da gogorra egiten dugun gaitza urti duzun futzua hain baita haundia zauden lekutik bidali gaitzazu indar berria gure bihotzean beti izango duzu bizi.

ZURE FAMILIA

Periko MARIEZKURRENA TELLETXEA
Iturenen, 2008ko otsailaren 17an
I. URTEURRENA



Ma Carmen CASTELOS SANJURJO
Beran, otsailaren 1ean

Gaur negar eragin badiguzu ere, irri eragin diguzu beti, eta zurekin pasatu ditugun momentu ederrengatik beti gogoan izanen zaitugu.

ZURE LAGUNAK



Juan GORTARI UGARTE
Oronoz-Mugairin, 2008ko otsailaren 21ean

I. URTEURRENA
Gauetz, zerua begiratzen dugunean, izar eder bat ikusten dugu.
Hori zu zana;
zure dirdirak indarra ematen digu aitzinera segitzeko.
Beti gure artean egonen zara.
EZ AGURRIK, EZ ADIORIK, GEROARTE BAIZIK.

ZURE FAMILIA
Bere aldeko meza martxoaren 1ean izanen da, Oronoz-Mugairiko Elizan, 12:00etan.



EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Alaia Perez Sarratea, Urdazubikoa, ilbeltzaren 26an.
Lorea Larraintzar Gortari, Arraizkoa, ilbeltzaren 22an.
Oier Laka Mitxelena, Igantzikoa, otsailaren 4an.
Leire Gartzia Vazquez, Lesakakoa, otsailaren 2an.
Valentin Covaci, Leitzakoa, ilbeltzaren 28an,
Nelu Covaci, Leitzakoa, ilbeltzaren 28an.
Aimar Iturbe Saenz, Leitzakoa, ilbeltzaren 29an.
Iker Otxoteko Bengoetxea, Etxalarakoa, ilbeltzaren 28an.
Alberto Latasa Iglesias, Sunbillakoa, otsailaren 6an.
Rafael Florin Ghertan Berende, Iturongoa, urtarrilaren 24an.
Katixa Ibarre Rosas, Sarakoa, ilbeltzaren 23an.
Alaia Ibarre Rosas, Sarakoa, ilbeltzaren 23an.
Lorena Pery, Sarakoa, otsailaren 2an.
Mateo Brabant, Sarakoa, otsailaren 6an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Lazaro Apezetxea Nabarro, Goizuetakoa, ilbeltzaren 28an, 82 urte.
Virginio Apezetxea Goizueta, Goizuetakoa, otsailaren 2an, 83 urte.
Paulina Urkiola Sukuntza, Leitzakoa, ilbeltzaren 31n, 88 urte.
Jean Fouquier, Beran, ilbeltzaren 28an, 81 urte.
Gregorio Irigoien Iparragirre, Etxalarkoa, ilbeltzaren 30ean, 72 urte.
Mª Jesus Etxenike Iparragirre, Arizkungoa, otsailaren 1ean, 84 urte.
Mª Carmen Castelos Sanjurjo, Berakoa, otsailaren 1ean, 90 urte.
Ana Mª Elizalde Colau, Doneztebekoa, otsailaren 2an, 98 urte.
Florencio Zabaleta Martirena, Leitzakoa, otsailaren 5ean, 86 urte.
Maria Iturria Larretxea, Berakoa, otsailaren 7an, 90 urte.
Joset Larzabal, Sarakoa, ilbeltzaren 22an.
Jean Baptiste Zaharrea, Sarakoa, otsailaren 6an.
Katherine Iriarte, Sarakoa, otsailaren 11n.



Pedro SARRATEA GAMIO

Narbarte-Igantzin, 2008ko otsailaren 23an

I. URTEURRENA

Sobera abudo joan bazinen ere, beti gogoan eta bihotzean izanen zaitugu.

ZURE FAMILIA

Urteurreneko meza martxoaren 1ean izanen da, Narbarte Elizan, 11:00etan.



Tomas IRAZOKI IRIARTE

Beran, urtarrilaren 24an

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei, mila esker.

ZURE FAMILIA



Tomas IRAZOKI IRIARTE

Beran, urtarrilaren 24an

Ibiltzeko mendebala joka, dinbili-danbala gure oroitzean zaude, Tomas, lagun haundi bat bezala.

HERRIKO LAGUNAK



Jon BRU
Berako txirrindulari ohia

ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Gurutze PIKABEA

Pena eta ilusioa. Bi sentimendu horiexekin topatu dugu Jon Bru Berako txirrindularia. Pena, nolabait «*behartuta*» txirrindularitza profesionala utzi egin behar izan duelako, eta ilusioa, etorkizunari begira buruan dituen proiektuekin gogoberritua dagoelako. Zazpi urte eman ditu profesionaletan Jon Bruk eta bada zerbait.

Kontent dago profesionaletan ari zeko bere ametsa bete duelako, berak erran bezala, «*txirrindularitzako kategoriarik altuenean egon naizelako*». Zapore «*gazi-gozoarekin*» gelditu dela ere nabarmendu dio Bruk **Ttipi-Ttapiari**: «*momentu on eta garaipenek zapore gozoa utzi didate, oroitzapen ona. Baina txarrak ere hor daude eta horiek zapore gazia eman didate. Orokorrean, halere, uste dut egindakoarekin pozik egoten ahal naizela*».

Azken bi denboraldiak Euskaltel taldean egin ditu Jon Bruk eta zuzendaritzak irailan jakinarazi zion ez ziola kontratua berrituko. «*Momentu hartan zalantzan nengoen. Banekien zaila izanen zela, baina gogorra izan zen, eta*

hala izaten segitzen du oraindik ere. Hainbertze urteren ondotik, txirrindularia ez zarela onartzea gogorra da». Euskaltelen pasatu dituen azkeneko bi urteak ditu gogoan: «*bi urtez segidan gaizki aritu naiz, sufritu egin dut...*». Geroztik, talde bila ibili dela ere onartu du, Portugal aldean eta Kaiku taldean, baina ez du zortirik izan.

Afizionatuen mailan, Caja Rural, Banesto eta Telco taldeetan ibili zen, eta La Pecol-ekin egin zuen salto profesionaletara. Ondotik, Kaiku eta Euskaltel-Euskadin ibili zen. Bereziki Kaikun pasatako garaia du gogoan Bruk: «*bikaina*». Taldekide eta ondoan eduki zituen artean «*giro ona*» izan zuten.

Eta edo garaipen gogoangarri batez galdetuta, afizionatuetara jo du: «*Balentiagi Lasterketa. Nire lagun eta gu-*

«Kirol gogorra da eta fisikoki eta buruz hagitz ongi prestatua egon behar da. Pertsona bezala ere aunitz ikasi dut, etxetik urruti, hura ere elkarbizitza da»

«Hainbertze urteren ondotik, gogorra da txirrindularia ez zarela onartzea»

- **Profesionaletan zazpi urte egin ondotik, joan den urteko irailean agurtu zuen txirrindularitza Jon Bruk (Bera, 1977).**
- **Halabeharrez utzi behar izan du txirrindularitza, saiatu arren, ez duelako talderik aurkitu. Beregatik balitz, gustura segituko lukeela aitortu digu eta hortaz, penarekin dago. Halere, etorkizunaz galdetuta, ilusioarekin mintzo da. Kirolariak prestatzeko zentro bat irekiko du apirilean Mutiloan (Nafarroa).**
- **Otsailaren 27an eta 28an omenaldia eskainiko diote sorterrian, eta pozik hartu du hori: «luxu bat da niretzat».**

rasoen aitzinean irabaztea garrantzitsua izan zen. Helmugara ailegatu eta nire garaipena ospatzen ari zirela ikus- tea pozgarria izan zen». Gerora, Portugalen ibili zenean, hori faltan bota omen zuen.

Momentu onak aunitz, eta txarrak ere bai, noski, «*batez ere, entrenatu eta zaindu arren, norbere maila eman ezin denean, gorputzak laguntzen ez duenean*». Ikasi ere aunitz egin du urteotan: «*kirol gogorra da, eta fisikoki eta buruz hagitz ongi prestatua egon behar da*». Pertsona bezala ere aunitz ikasi duela adierazi digu, «*etxetik urruti, hura ere elkarbizitza da*».

Eta orain zer? Ba proiektu eta ilusio aunitz. Apirilean kirolariak prestatzeko zentro bat irekiko du Mutiloan eta horretan dihardu burubelarri. «*Garai berri bat hasiko dut bizitzan, eta heldu zaidanari heltzeko gogo haundiarekin nago*».

Otsailaren 27an eta 28an herritarrek eskainiko dioten omenaldiaz ere mintzatu gara, eta poza eta eskerrak emateko gogo antzeman dizkiogu. «*Baharbada hori izanen da besoak altxako ditudan azken aldia*».

PILOTA



ARGAZKIA: GOIKO

Ilbeltzaren 31ko finalatan jokatu zuten pilotariak.

100 pilotari Bortzirietako Eskuz Banakako Txapelketan

Bortz kategoriatan banatuak 11 partida jokatu ziren ilbeltzaren 31n

ttipi-ttapa

Ilbeltzaren 31n jokatu ziren Lesakako frontoian Bortzirietako Eskuz Banakako VIII. Txapelketako finalak. Bortz kategoriatan banatuak, denetara hamaika partida jokatu ziren: aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak, infantilak eta kadete mailako finalak. Partidak bukatu ondotik, trofeo eta txapelak banaketa egin zen txapelak eta azpitxapelak izan zirenen artean. Halere, txapelketan parte hartu duten pilotari guzietako oroigarri bana jaso zuten. Txapelketa joan den urteko abenduaren 13an hasi zen eta 100 pilotarik parte hartu dute.

Ttikien mailan, aurrebenjamin kategorian, Berako Gure Txokoako Xiker Lizardik 18 eta 3 irabazi zion Igantzik Biltokiko Beñat lantziri.

Benjaminak hiru mailatan aritu ziren. **Benjamin C mailan**, Lesakako Arkupeko Mikel Galardik 18 eta 9 irabazi



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Adinez nagusi ez izanagatik ere, tanto politak ikusteko aukera izan zen.

zuen Josu Elizondo taldekideari; **Benjamin B mailan** Arkupeko Aimar Otxotekok 18 eta 9 irabazi zion Gure Txokoako Oier Larretxeari; **Benjamin A mailan** Biltokiko Enaitz Telletxea 18 eta 4 gailendu zitzaion Gure Txokoako Mikel Eltzaurdiari.

Alebinak ere hiru mailatan banatuak aritu ziren. **Alebin C mailan**, Arkupeko Iñigo Arretxeak 18 eta 5eko markagailuarekin garaitu

zuen Etxalarko Altxatoko Jon Iparragirre; **Alebin B mailan**, Altxatoko Goiatz Jauregik 18 eta 12 irabazi zion Arkupeko Jon Ubiriari; **Alebin A mailan**, Baztango Txarutako Enaitz Anso 18 eta 6 nagusitu zitzaion Iñaki Anso taldekide eta anaieri.

Infantilek ere hiru mailatan jokatu zuten. **Infantil C mailan**, Gure Txokoako Iñigo Martinezek 18 eta 8 irabazi zion Andoni Lazka-

notegi taldekideari; B mailan, berriz, Biltokiko Unai Telletxeak 18 eta 5 irabazi zion Gure Txokoako Beñat Mitxelena; infantil A mailan, azkenik, Arkupeko Unai Zamorano 18 eta 12 nagusitu zitzaion Txarutako Arkaitz Untxalori.

Eguneko azken partida **kadete mailan** jokatu zuten eta Baztan aldera joan zen txapela. Txarutako Iban Indak 18 eta 10 irabazi zion Biltokiko Adur lantziri.

MENDIA-KORRIKA

17 garaipen lortu ditu Manttalek 2008an

ttipi-ttapa

Manttale Mendi Lasterketa taldeak 50 lasterketa baino gehiagotan parte hartu zuen iaz, mendi nahiz asfalto gaineko lasterketak eta guzira 17 garaipen lortu zituen. Horiematik 8 Cristina Arbues igantziarrak lortu zituen, 3 Patxi Irazoki igantziarrak, bina Rafa Maritxalar lesakarrak era Unai Santamaria hernaniarrak eta bana Alberto Barberena elizondarrak eta Lorea Agirre beratarrak. 2007an egin zuen bezalaxe, Manttalek Espainiako Kopako lau probetan eta Euskal Herriko Kopako lau etan parte hartu zuen. Asfalto gaineko proba garrantzitsuetan ere atera ziren Manttaleko korrikalariak: Behobia-Donostia, Donostiako Maratoi Erdia, Orreaga-Zubiri lasterketa eta Nafarroa, Gipuzkoa eta Iparraldeko bertze hainbat herri lasterketan. Berako Mendi Maratoi Erdia ere antolatu zuen iaz laugarren aldiz eta horrez gain, 8 eta 14 urte arteko neska-mutikoentzat atletismo eskola sortu du eta larunbatero atletismoari buruzko ikasgaiak ematen dira. Informazio gehiago: www.manttale.com eta www.ttipi.netweb orrietan.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

IKASTAROAK

ETXALAR

Martxoaren 9tik 18ra, 16 orduko ikastaroa eskainiko da Kultur Etxean. Curriculum bat edota iragarki bat Word erabiliz egiten, Nafarroako administrazioa Interneten eta musika eta irratia Internet bidez nola entzun ikasteko aukera.

INAUTERIAK

BERA

Otsailaren 18tik 23ra inauteriak.

DONEZTEBE

Otsailaren 19tik 21era inauteriak.

ELIZONDO

Otsailaren 20an eta 21ean inauteriak.

ETXALAR

Otsailaren 19an eta 23an eta 24an inauteriak. Xehetasunak 13. orrialdean.

GOIZUETA

Otsailaren 22tik 24ra eta 28an inauteriak. Xehetasunak 27. orrialdean.

LESAKA

Otsailaren 19an eta 22tik eta 24ra inauteriak.

BAZTAN

Otsailaren 19tik 24ra herrietako inauteriak.

URDZUBI

Otsailaren 19an eta 22an eta 23an inauteriak. Xehetasun gehiago 36. orrialdean.

SARA

Otsailaren 21ean eta 22an inauteriak. Xehetasun gehiago 37. orrialdean.

GOMENDIOAK



Ortzegun honetatik aitzinera inauteri ofizialen txanda

INAUTERIETAN MURGILDUAK

Eratsun, Arantza, Igantzi, Sunbilla, Leitza, Arano, Saldias, Ituren, Aurtitz, Zubieta... Horietan eta bertze hainbatetan agur erran diegu inauteriei. Baina orain gainean ditugunak inauteri ofizialak dira, eta horiei ortzegun honetan, otsailak 19, emanen zaie hasieran, Ortzegun Gizeneko eskeekin. Zebaitetan «arraultze arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertze», bertzeetan «urtzaingizen urtzaingizen, zingar-arraultze, bat ezpada bertze, biyek hobe» erranez, batera eta bertzera ibiliko dira. Ortziraletik aitzinera, berriz, herri aunitzetako inauteriak hasiko dira: Urdazubin, Elizondon eta Baz-

tango bertze herrietan, Donezteben, Etxalarren, Lesakan, Beran, Goizuetan, Saran...

PERTSONAIA EZAGUNAK

Inauteriekin batera, pertsonaia ezagunak agertuko zaizkigu: igande ilunabarrean Lesakan Zaku-Zaharrak eta Beran egun guztian inude eta artzainak, zagiak Goizuetan...

KARROZAK

Gisa guztietako karrozak ikusteko aukera ere izanen da: larunbat arratsaldean Donezteben, astearte eguerdian Etxalarren, astelehene goizean Lesakan eta Beran...

DISKAK



Rocka ta urrezko komona

BONBERENEA TXARANGA

BONBERENEA, 2009

2005ean kaleratu zuen Bonbereneak bere lehendabiziko diska, Bonberenea Ekintzakek ekoitzia eta Karlos Osinagak grabatua. Lagun kuadrilla bat elkartu eta horrela egin zuten, eta *Rocka ta urrezko komona* izeneko euren azken lan hau ere 40 laguneko talde baten lanaren emaitza izan da. Partituren liburuxka eta bideoklipak ere bildu dituzte argitalpenean. Ezagunak diren rock abestien bertsio bilduma osatu dute, euren gisara berrinterpretatuz. Bereziki 80. hamarkadan Euskal Herrian eta bertze hainbat tokitan ezagunak izan ziren talde hauen lanak ageri dira: R.I.P., La Polla Records, Piperrak, Ramones, The Clash... Bonberenea Txaranga 2003an abiatu zuen bere ibilbidea, besta edo ospakizunen bat girotzeko intentzioarekin. Gerotik horretan dihardu.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (urtarrilaren 30etik otsailaren 6ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 40,00 € (+4,00)

Zerri gizena
0,955€ kilo. (=)

Zerramak:
0,430€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,31 (=)

1.koa 4,01 (=)

2.koa 3,31 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,41 (=)

1.koa 4,11 (=)

2.koa 3,43 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 130,00 (=)

idixkoak 192,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,10/5,90

8-10 kilokoak: 3,90/4,30

JAKIN BEHARREKOAK

457 erreklamazio aurkeztu dira Iracheren eskualdeko bulegoetan

Leitzaldea, Baztan, Bortziriak eta Bertizaranako 2008ko datuak dira

Irache Kontsumitzaileen Elkarteak eskualdean kudeatzen dituen kontsumitzaileendako informazio bulegoetan, 457 erreklamazioa aurkeztu ziren 2008an. Horieta-tik 149 Lesakako bulegoan jaso ziren, 147 Baztangoan, 127 Leitzakoan eta 34 Bertizaranakoan.

Mikel Bezunartea Iracheko teknikaria, normalean bi astetik behin etortzen da udal bulego bakoitzera eta erreklamazioak eta kontsultak bideratzen, komunikabideetan kolaborazioak egiten, kontsumoari buruzko doaneko argibideak ematen eta ikastaroak eta hitzaldiak prestatzen ematen du denbora. Kontsumoarekin zerikusia duten afertan laguntza juridikoa ere ematen du eta bitartekari lana ere egiten du, epaitegira joan gabe aferak konpon-



Telefonia, Internet, argindarra eta gas zerbitzua dira erreklamazio gehien eragiten dituztenak.

du nahian. Hori posible ez denean, kontsumo sailan nola administrazioko gainerako sailtan salaketak aurkeztu eta epaitegira joan behar izanez gero, laguntza ematen du. 2008an, erraterako, bortz salaketa jarri ziren eskualdean kontsumitzaileen informaziorako bulegoen bitartez, Bortzirietan eta Leitzan bina eta bakarra Baztanen.

OINARRIZKO ZERBITZUEKIN KEXU

Oinarrizko zerbitzuak ematen dituzten enpresek —telefonoa, telebista, Internet, gasa eta argindarra saltzen dutenak— eragin dituzte erreklamazio eta kontsulta gehien, 151 denetara.

ETXEBIZITZEN INGURUKO KEZKAK

Etxebizitzak ere kez-

ka iturri dira kontsumitzaileentzat, 107 erreklamazio aurkeztu baitziren 2008an. Etxebizitza berri nahiz zaharraren erosketaren gainera laguntza juridikoa ematen da bulegoan. Honela, kontratuak begirutzen dira eta arazoak izanez gero, bitartekari lana egiten da. Alokairuei buruzko zalantzak ere argitzen zaizkie maisterrei nahiz jabeei.

Aseguru, banku eta aurrezki kutxen gainera 69 erreklamazio eta kontsulta egin ziren iaz eskualdean; merkataritzari buruzko 39; etxez etxeko zerbitzu, tailer eta zerbitzu profesionali buruzko 30; bidaia edo garraioaren inguruko 15; administrazioak eragindako 13; eta kontsumoko bertze gaiek 33 kontsulta eragin zituzten eskualdean.

LIBURUAK



Habitat

Katixa AGIRRE

ELKAR, 2009

Etxea: aterpe naturala, gotorleku sekretua, maitasunerako habia, independentziaren eremua, bakardade goxorako abagunea. Etxea: gure habitat ideala. Hori bakarrik al da etxea? Gaur egun, luxuzko produktua ere bada. Hipotekak. Alokairuaren komeriak. Auzokoen gatazkak. Sei ipuinetan zehar, pertsonaiek hain goxoa ez den bakardadea pairatuko dute, hain zintzoak ez diren maitasun istorioak biziko di-

tuzte, mudantza etsigarriak eta bisita deserosoak agoantatu beharko dituzte, eta batzuek, dena galduko dute etxeak ordezkatzen duen ustezko independentzia horren peskiz. Habitat liburua ez da Katixa Agirre idazle arabarraren (Gasteiz, 1981) lehenbiziko lana. Bertzeak bertze, Elkar argitaletxearekin kaleratu izan ditu *Sua falta zaigu* eta *Paularen seigarren atzamarra*. Bat zein bertzea 2007an argitaratu zituen.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Otsailaren 22an Unbotora mendi irteera, Baztango Mendigoizaleak-ek antolatuta.

Martxoaren 1ean Solarrera ateraldia antolatuta du Baztango Mendigoizaleak-ek.

BERA

Martxoaren 1ean Iratira ateraldia antolatuta du Labiaga Ikastolako Larun-Ttiki Mendi Taldeak.

ZUGARRAMURDI

Otsailaren 22an Zortzi milak, Atxuria Mendi Taldeak antolatuta.

BERTSO SAIOAK

GOIZUETA

Otsailaren 21ean Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa, udaletxeko Ganbaran, 17:30ean.

ALTSASU

Otsailaren 28an Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoa, Kultur Etxean, 17:30ean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Otsailaren 28an Joseinaren ikuskizun berria Lur dantzalekuan. 01:00etatik aitzinera. Sarrera: 9 euro.

IPUIN KONTALARIAK

BERA

Otsailaren 26an *Ibili alai ipuinetan blai* ipuina kontatuko du Izaskun Mujikak. Liburutegian izanen da, 18:00etan. 4-8 urteko neska-mutikoenzat.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar dira. Argazkia jarri nahi izanez gero, 10 €. Ttipi-ttapa telebistan eta www.ttipi.net en ere agertuko da 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak



Baztango
promoción inmobiliaria

ESKARI HAUNDIA IZATEAGATIK ERRENTAN HARTZEKO PISUAK BEHAR DITUGU BAZTAN-BIDASOAN

ETXEBITZAK DITUGU SALGAI ETA ERRENTAN EMATEKO PISUAK, LOKALAK, TXALETAK, BORDAK, BASERRIAK, LUR EREMU URBANIZATU ETA URBANIZAGARRIAK, LURZORU INDUSTRIALAK ETA PABILOIAK...

Tfn. 948 630552 Katttonberri karrika, 4
Faxa 948 630106 31780 Bera. Navarra

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserrira salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

DONEZTEBE. Amezitia ka-

LEITZA. Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.


948 510534

rrikan duplexa salgai. 3 logela eta 2 komun. €607 978656.

DONEZTEBE. 2 logelako pisua salgai. 24.000.000 pta. €628 725328.

DONEZTEBE. Aparan zonaldean pisu berria salgai. 100 m² eta trastelekua. Prezio merkea. €617 461649.

DONEZTEBE. Etxe erabat berriua salgai: 2 pisu duplex, lokal komertziala eta lorategi tiki bat. Merkatarien Etorbidea, 27. Ikusi eta prezioaz solastuko gara. Zuzenean nagusiarekin. €607 978656.



BERA. Duplexa salgai Bidasoa karrikan. Eraberriua. Interesatuak bakarrik. €661 577137.

BERA. Eztegarra pasealekuan pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela eta sukaldea. Kanpora begira eta berogailuarekin. €600 501881.

BERA. Herri erdian pisu berria salgai, Izpoz karrikan. €948 630567 (9:00-13:30 eta 17:00-20:00).

ARANTZA. Bi familiako etxea salgai. €630 388154.

ETXALAR. Etxebizitza berriak salgai. Aukera ona. €669 432480.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. Bidasoa karrikan pisua errentan emateko. Mobleztatua. €948 630431.

ELIZONDO. Guztiz mobleztatutako apartamentua errentan emateko. Inguru lasaian eta berrian, herri-gunetik hurbil. Igogailua eta berogailua. €948 637283.

DONEZTEBE. Pisu errentan emateko. €678 633562.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESAKA. 53 m²ko lokal komertziala salgai edo errentan emateko. Antoiu 29, beheko solairua. €679 432522.

LESAKA. 20 m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. €659 609678.

BERA. Herri erdian garajea salgai. Lokal komertziala egiteko behar den tainarekin. €948 630567 (9:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara).

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LESAKA. Albistur karrikan lurrazpiko garajea errentan emateko. €618 962937.

ZERBITZUAK

205 Zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase gututako zurgin lanak
- Eskatu aurrerantuzko konpromisoak gabe

Jose Miguel Errozkabe
Tel. 948 634 048 - 647 818 944
Guztekin ARANTZA

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

BURLATA-IRUÑA. Tayri higiene-naturista zentroa: ikastaroak asteburuetan=20



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan ahoikularitza
- Istripu eta oasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

948 631 218

Kanttonberri 1, BERA

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE




Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



XABIER VALVERDE LEIZARI zorioren semea 19an urte 1 beteko du. Muxu haundi bat familiaren partetik "potxolo".



ENEKO OSKOZ ETXEPAREK zorioren semea 16an urte bat beteko du gure bihotzak alaitzen dituen tiki honek. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.




ARRAIZKO LOREA LARRAINZAR GORTARI gure neska polita sortu da urtarilaren 22an. Muxu haundi bat aita eta amaren partetik.



IRURITAKO NAROA ELIZAINZIN ALTZUARTEK 5 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



OTSAILAREN 27AN MAIALEN EZKURRA APEZTEXEA SAGUTXEK 8 urte eginen ditu. Zorionak aita-txo, amatxo, Kotetiko eta familia guztiaren partetik.



BERAKO ALAITZ IRIARTE GOMEZEK zorioren semea 22an 4 urte beteko ditu. Zorionak "Kantineran" Irungo familiaren partetik.



BERAKO ALAITZ IRIARTE GOMEZEK zorioren semea 22an 4 urte beteko ditu. Zorionak "bihurri" Berako familiaren partetik.



ANDONI eta IZARO IRIBARREN zorioren semea 21ean eta 26an 10 eta 14 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.




ANDONI eta IZARO IRIBARREN zorioren semea 21ean eta 26an 10 eta 14 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



IXIDRO eta PEIO Iturengo osaba-ilebek urteak beteko dituzte otsailaren 19an eta 25ean. Zorionak eta urte askotarako zuten familiaren partetik. Txokolatadaren zain geldituko gara!



IRUÑEKO UGUTZ ETXEBERRIA IRIGOIENEK 4 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak Doneztebeko ataxi eta amaxiren partetik etxeko printzeari.



GOIZUETAKO UXUE AIZKORBE HERREREK zorioren semea 21ean 2 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat aita-txo eta amaxoren partetik.



DONEZTEBEKO ELIZABETH LACAMBRA GALAINEK 4 urte beteko ditu otsailaren 23an. Zorionak zure familiaren partetik.



ANE TELLETXEA IGOA lesakarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 19an. Auniz urtez, Elordi, Txomin-koborda, Harizpe eta Sagardibaita-koen partetik.



ANE TELLETXEA IGOA lesakarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 19an. Auniz urtez Pello anaiaren eta Orti eta Lexuri lagunaren partetik.



ANE TELLETXEA IGOA lesakarrak 8 urte beteko ditu otsailaren 19an. Auniz urtez Pello anaiaren eta Orti eta Lexuri lagunaren partetik.



GARAZI UBIRIA GARMENDIAK zorioren semea 24an 4 urte beteko ditu. Zorionak ataxi, amaxi, osaba-izeba eta lehengusuaren partetik. Egun zorionsua pasal!



IRATXE LOIARTE PETRIKORENAK zorioren semea 19an 5 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik joalduna!



IRATXE LOIARTE PETRIKORENAK zorioren semea 19an 5 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik joalduna!

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK

ZURE LAGUNTZA

BEHAR DU

Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

Proiektu zenbakia: 15.996

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

geure bezereok
aukeratutako
proiektua **can**



deskontuak

DENDA HAUTAN EROSTEAGATIK



INTZURI optika • LESAKA
%10eko deskontua

AGARA

AGARA kirolak • BERA
%5eko deskontua kirol artikuluetan



OSTIZ zapata-denda • DONEZTEBE
%10eko deskontua

MASTER

ALTZURI

ALTZURI etxetresnak • LESAKA
%5eko deskontua etxetresnetan



KATEA-BIKE • BERA
%5eko deskontua konponketetan

FANTXIKE

FANTXIKE arropa-denda • ELIZONDO
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan

SARIDUNAK:

- 3 liburu (Elkar):
Leire Portu (Lesaka)
- 2 diska (Rundown):
Marcelina Ormait (Elizondoa)
- Txapela Buruan 2 kamiseta:
M^a Gloria Arretxea (Sunbilla)
Elena Irigoien (Erratzul)
- Nafarroa Oinezeko lotea:
Juani Altzu (Ituren)
- 2 kamiseta (Oninart):
Joxe Apeztegia (Ituren)
- Altxorrak eta lapurrak jokua
Joxe Etxenike (Etxalar)



Donostiako Aquariumeko
2 sarrera:
Cristina Alzuarte (Irurial)

ORAIN www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58



ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

8 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
asteleheneretik ostiralera
09:00-16:00 Tel. 948 63 54 58

1 HIRU LIBURU

Kristinaren sekretua (Itxual)
Zergatik bit da bezain Txan-
gorriaren amona? (I-10 urte)
Ingabatz (1-10 urte)

Lote 1

erein
www.erein.com

2 MARTIKO PRODUKTUAK

Lote 1

Martiko
www.martiko.com

3 JANTZIAK

Soneku, kamiseta,
perretak... eta askatu

2 Lote

txapela buruan
www.txapelaburuan.com

4 Pirritx, Porrotx eta Mari Motos

Mari Motos DVDa
Piratak CDA
Piratak posterra
3 pin

Lote 1

Kati Gorrilla
www.katigorilla.com

5 KAMISETA

2 Lote

andee
www.andootapunto.com

6 Waki Diguas akordeoiari

Lote 1

terminmusic.com
www.terminmusic.com

ttipi saskia **TTIPI SASKIA**ren Zozketan
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE
Bidali SMSa idatziz **TTIPI SASKIA** eta zure IZEN-DEITURA **5767** ra

AQUARIUM
DONOSTIA
943 44 00 99
www.aquariums.com

2 sarrera

Zozketan parte hartzeko epea: abuztuaren 27koa. Irabazlearen izena martxoaren 30eko aldizkarian argitaratuko da. Hurreneren kotxea 1.20€ (IREZ) gabea. Zure datuak ttipi sarearen bitartez gurekin partekatu behar dira zuzenazkoan lotzen diren esanetan berriz erabateko. Zuzenketa edo guztekin partekatu behar duzue deialdeko 948 63 54 58ra.

Itxi	* F1
Gorde	* F2
Gorde dena	* G
Ezabatu	* E
Berregin	

Bidali lotura postaz

Kopiatu

Itsatsi ▶

Ebaki

Inprimatu

F6

Atsegin dugu jakitea etorkizuna esku onetan dagoela

Atsegin dugu gure planeta hobetzeko lan egitea. Atsegin dugu ikertzea. Atsegin dugu jakitea etorkizuna aldatzen ahal dela. Eta atsegin dugu jakitea aunitz garela amets hau berbera konpartitzen dugunak. Ilusio honek egunetik egunera hobetzen laguntzen digu, ingurumenarekin arduratsuak diren portaerak geure gain hartzeko dugun konpromiso enpresarialarekin leial izateko eta eraginkortasunez jarduteko geure baliabideak optimizatzeke orduan.


gasNatural
Navarra

www.gasnatural.com